

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXVI. edizioa

2 0 2 4



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXVI. edizioa

2 0 2 4

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposizioa eta Fotomekanika:

Tecnigraf, S.L.L.

Inprimatzailea:

Tecnigraf, S.L.L.

Lege Gordailua: BI 728-2024



Rafael Mikoleta Ipuin lehiaketa

Badira 36 urte Rafael Mikoleta Ipuin lehiaketa lehen aldiz egin zenetik, eta gaur ere berriro elkartu gara Arabiar Areto honetan gure gazte sortzaileei merezi duten aitortza emateko.

Aitortu ez ezik txalotu ere egin behar ditugu parte hartu duten 861 gaztetxo. Meritu handia duzue, ez baita batere erraza paper zuri baten aurrean jartzea, eta buruan bueltaka izan dituzuen ideiak kontakizun bihurtzea.

Laguntasuna, enpatia, errespetua eta justizia soziala moduko balioak partekatu dituzue gurekin ipuin hauetan; bidaiatzeko gonbitea ere egin diguzue eta Bilbotik Euskal Herriko eta munduko hainbat txokotara eramán gaituzue literaturaren bidez.

Denetariko gaiak jorratu dituzue, gaurkotasuna dutenak eta gure iraganari erreferentzia egiten diotenak; batzuk gogorrak dira, bihotza uzkuritu digute, munduan gertatzen ari diren gerretako bonbardaketen krudelkeriari buruz idatzitakoak dira horren adibidea; beste batzuk aldiz, irribarrets irakurri ditugu, umore eta irudimen kolpe ederrekin gozatu ahal izan ditugulako. Edozelan ere, zuen kezkak, ilusioak eta ametsak ekarri dituzue ipuinotara, eta ahalegin hori eskertu beharrean gaude. Eskerrik asko, beraz, parte hartu duzuen guzti-guztiei eta zorionak bihotz-bihotzez.

Juan M^a Aburto
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko martxoaren hogeian, arratsaldeko bostetan, epaimahaiburua, epaimahikideak, idazkaria eta Labayru Fundazioaren idazkaritza teknikoa batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXXVI. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 861 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. AIMARREK EZ DU HITZ EGIN NAHI
Haizea López Domingo
Artxandape Ikastola HLBHIP
2. MARI PURI TXORIBURU
Aroa Elizundia García
Urretxindorra Ikastola
3. DESAFINATUTAKO DIAPASOIA
Oier Encinas Logacho
Kirikiño Ikastola HLBHIP

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. NIRE BARNEKO TRAGANARRUA
Markel Urkiaga Tellería
La Salle Bilbao HLBHIP
2. OGI ETA OIHAL ARTEA
Sare Urizar Asensio
Karmelo Ikastola IPI
3. TITULUA AMAIERAN
Ane Martínez Revuelta
Deustuko Ikastola IPI

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. BIHOTZ HANDIKO GIZON BELDURGARRIA
Urtzi Goikoetxea Peñas
La Salle Bilbao HLBHIP
2. KOLOREDUN MARRAZOA
Noa Rodríguez Martínez
Deustuko Ikastola IPI
3. ISRAEL ETA PALESTINA. BI IPUIN MOTZ HISTORIAN ZEHAR
Jorge Martínez de Paz
Ignacio Ellacuría-Zurbaran BHI

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. ZER DA MAITASUNA?
Tania Serbanescu Podac
Artxandape Ikastola HLBHIP
2. AMETSETAKO IKASBIDAIA
Uxue Larruzea Lopez
San Adrian BHI
3. COLLAGEAREN ATZEKO ISTORIOA
Leire Ramil de Lucas
San Adrian BHI

MIKOLETA - BILBAO BALIOEN HIRIA

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

URPEAN
Oier Olmos Chico
San Adrian BHI

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

EGUNEZ EGUN
Arantza Landaburu Iñurrieta
Artxandape Ikastola HLBHIP

ARGITARAGARRIAK

A KATEGORIA:

- KATU BELTZA, Mikel Bilbao Cuesta, Kirikiño Ikastola HLBHIP
- LAILA, Malen Sagarna Villanueva, Karmelo Ikastola IPI
- NESKA EUSKALDUNA, Katixa Villanueva Agirregoitia, Kirikiño Ikastola HLBHIP

B KATEGORIA:

- ZERRENDIA LUZEA, Jon Oleagoitia Ruano, Kirikiño Ikastola HLBHIP
- HONDARTZA GARBIAK, Oa Goenaga Gallastegi, Kirikiño Ikastola HLBHIP
- ABENDUKO MAHATSAK, Mikel Larrañaga Martinez, Deustuko Ikastola IPI

C KATEGORIA:

- URETAKO MARGOLARIA, Alba Benito Álvarez, Deustuko Ikastola IPI
- NIRE ISTORIA, Laiaz Egiguren Santamaria, Ignacio Ellacuría-Zurbaran BHI

D KATEGORIA:

- JUSTIZIAREN LORATEGIA, Ivan Lobo de Miguel, San Adrian BHI
- OBSESIOA, Peio Garaizar Barrio, Ignacio Ellacuría-Zurbaran BHI
- ADISKIDETASUNAREN ODISEA, Haizea Campo Sasiain, Deustuko Ikastola IPI

Eta batzarra bukatutzat eman da, Bilbon, bi mila eta hogeita lauko martxoaren hogeian arratsaldeko seietan.

Eider Inunciaga Serna, epaimahaiburua

Ziortza Artabe Etxebarria (Labayru Fundazioa), idazkaritza teknikoa

Lutxo Egia del Rio, epaimahaikidea

Mikel Etxaburu Osa, epaimahaikidea

Irene Urrizelki Berro, epaimahaikidea

Txani Rodriguez Hernandez, epaimahaikidea


Juan Ramón Madariaga Abaitua, epaimahaikidea

Maite Santiago Garabieta, epaimahaikidea

Josu Amundarain San Martin, epaimahaikidea

Eneko Zuloaga San Román, epaimahaikidea

Aritz Escandón Navarro, idazkaria



A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



AIMARREK EZ DU HITZ EGIN NAHI

Haizea López Domingo
Artxandape Ikastola HLBHIP

Behin batean, mutil bat ikastola berri batera joan zen. Mutikoa Aimar deitzen zen eta 9 urte zituen. Aimar Bilbon bizi zen. Oso alaia zen eta margozea gustatzen zitzaion.

Ikastolan asko kostatzen zitzaion irakurtzea, eta horrek arazoak sortzen zizkion ikaskideekin. Maisuak irakurtzeko esaten zionean, barre egiten zuten guztiek eta Aimar triste jartzen zen. Egun guztietan gertatzen zitzaion hori. Orduan, marrazten hasten zen, guztiaz ahazteko. Aimarrek ez zuen nahi berriro berari barre egiterik, eta horretarako onena hitz ez egitea zela pentsatu zuen.

Egunak pasatu zituen Aimarrek hitz egin gabe, eta familiako guztiak oso arduraturik zeuden Aimarrengatik. Ikastolan neska bat berarengana hurbildu zen eta galdetu zion:

—Nire laguna izan nahi duzu?

Aimarrek ez zekien zer egin, edo erantzun edo isilik gelditu.

Azkenean erabaki hau hartu zuen: tutik ere esan gabe margotzen hasi zen. Neskari, Maria deitzen zena, Aimarren marrazkiak oso politak irudituz zitzaizkion. Orduan Mariak esan zion:

—Ze marrazki politak. Egingo zenidake bat?

Aimarrek oraingoan ere ez zuen erantzun.

Hurrengo egunean Aimar Mariarengana hurbildu zen eta marrazki bat eman zion.

Mariari asko gustatu zitzaion marrazkia, eta esan zion:

—Artista hutsa zara. Ez dizute inoiz esan?

Aimarrek buruarekin ezetz esan zion. Maria Aimarrek egin zion marrazkia ikaskideei erakusten hasi zen, eta guztiak hasi zitzaizkion galdezka: zuk egin duzu? Mariak ikaskideei erantzun zien:

—Ez, ez dut nik egin. Ez duzue sinetsiko nork egin duen.

Ikaskideak izenak aipatzen hasi ziren, baina inork ere ez zuen Aimarren izena esan. Aimarrek marraztu zuela esan zuenean, ikaskideek esan zuten:

—Marrazki hori Aimarrek marraztu du? Ez daki-eta irakurtzen ere!

Maria klasetik joan zen eta pasilloan kartel bat aurkitu zuen. Lehiaketa bati buruzkoa zen. Eskolako jairako kartel lehiaketa. Maria jarraian Aimararengana joan zen, eta lehiaketa bat zegoela esan zion; baina Aimarrek marrazten jarraitu zuen, ezer esan gabe. Maria kartela egiteko konbentzitzen saiatu zen.

—Pasilloan agertzen zen kartelaren informazioa nik irakurriko dizut.

Mariak Aimarri eskutik heldu zion, kartelaren aurrera eraman zuen eta kartelean jartzen zuen guztia irakurri zion. Mariak ea ulertzen zuen galdetu zion, baina Aimarrek ez zion erantzun.


Hurrengo egunean, Aimar maisuarengana joan zen eta kartela eman zion. Mariak Aimar ikusi zuen kartela maisuari ematen eta oso alai jarri zen.

Egun batzuk pasa eta gero, zuzendariak lehiaketaren irabazlearen izena aipatu zuen. Aimar izan zen irabazlea. Ikaskide guztiak harriturik gelditu ziren. Mariak, guztion aurrean altxatu, eta hau esan zuen:

—GUZTIOK EZ DUGU GAUZA GUZTIETAN ONAK IZAN BEHAR. AIMARRI ASKO KOSTATZEN ZAIO IRAKURTZEA, BAINA MARGOTZEN OSO ONA DA. ZORIONAK AIMAR!!!

Aimarrek Mariari begiratu, eta esan zion baxu:

—Eskerrik asko!



MARI PURI TXORIBURU

Aroa Elizundia García
Urretxindorra Ikastola

Mari Puri Bilbon bizi den euli zoro bat da eta arazo bat dauka: janari bila ibiltzen da, eta tabernetan sartzen den bakoitzean, gizakiek beti uxatzen dute.

—A zer zoramena!!! Goseak amorratzen nago! Gizaki hauek noiz ikasiko dute konpartitzen? Baina, baina... azukrezko kotoi bat!! Banoa mokadu bat egitera! Mari Puriri adurra jausten zitzaion.

—Zizta! Ai, ene, azukrezko kotoi barruan nago. Zoragarria!!!

—Beste mokadu bat egitera joango naiz! Hemen barruan goxoki bat dago, txokolatea barra-barra. Hara!!! Kroketa bat!!! Hau bai paradisua. Nolako leku zoragarria!!! Hemen gelditu nahi dut. Goxoki bat probatuko dut. Bai gozoa! Marrubizkoa da!





Mari Puri gustura zegoen, baina ez zekien zer gertatuko zitzaion.

Ene, ez! Mari Puri gizon baten bizarrean sartu zen. Gizonak bizarra moztu nahi zuen. Zer gertatuko da Mari Purirekin? Bada, gizonak bizar guztia kendu zuen, Mari Puri jausi egin zen eta amorratuta alde egin zuen.

—Leku hau gustuko nuen. Leku guztietatik botatzen naute.

Eta gainera ez zekien bizartegitik ateratzen. Azkenean leihotik atera zen, ile-apaintzaileak uxatuta.

—Hara, zein eraikuntza arraroa! Jatera eta lo egitera sartuko naiz. Ze eraikuntza modernoa! Hara, lore bat dago hor, deskantsatzeko leku perfektua!

Orduan Mari Puri lorea omen zen horretan etzan zen.

—Ze arraroa, lore hau itsaskorra da!

Mari Puri Bilboko udaletxean zegoen pizza batean itsatsi zen.

—Alkate, on egin! Ñam-ñam!



DESAFINATUTAKO DIAPASOIA

Oier Encinas Logacho
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazen behin Bilbo izeneko herri txiki bat. Bertan, bi denda zeuden, Musikari Ibiltari eta Pentagrama izenekoak. Pentagrama dendan diapasoï familia bat bizi zen, zehazki diapasoï familia bat. Diapasoï-familiako semea Unai deitzen zen. Dakizuenez, diapasoïak musika tresnak afinatzeko erabiltzen diren gailu metalikoak dira. Familia horrek Pentagraman lan egiten zuen eta bertan diru asko irabazten zuen.


Egun batean, Bilboko Kontserbatoriotik deitu zioten Unairen aitari bertan lan egiteko. Unairen aita Dani deitzen zen eta diru asko irabaziko zuen astero. Han lan eginez gero, aberatsak egingo ziren! Danik baietz esan zuen, ze aurreko lana duela gutxi galdu zuen.

Egun batean, Dani lanera joan zen eta kartel bat ikusi zuen: “Umeak aitarekin etorri ahal dira lanera”. Hori ikusita, Unairen aita oso pozik joan zen etxera, eta heltzerakoan esan zion Unairi:

—Etorri nahi al duzu nirekin lanera egunen batean?

—Noski, aita, poz-pozik joango naiz.


Hurrengo egunean, Unai aitarekin joan zen lanera. Umeentzako klase bat zegoen Kontserbatorioan eta klase horretara joan zen. Gelara sartu, eta esan zuen maisuak:



- Jo dezake norbaitek Fa nota?
 —Nik! Nik! —esan zuen Unaik.
 —Ederto, Unai, jo ezazu zuk Fa nota.
 —Dooooooooo —jo zuen Unaik.
 —Baina, Unai! Ze nota da hori? Hori ez da Fa nota.
 Unai oso lotsatuta joan zen etxera, triste-triste, eta amak esan zion:
 —Zer gertatzen zaizu, Unai?
 —Desafinatuta nago, ama.

Bere familia izutu egin zen eta ez zuten sinesten Unaik esaten zuena. Unairen soinura ohituta zeuden eta ez ziren konturatu desafinatuta zegoela.

Hurrengo egunean, Unai medikuarenera joan zen. Medikuak desafinatuta zegoela eta ez zegoela konponbiderik esan zion. Ebakuntza asko eduki zituen eta ebakuntzek ez zuten ezertarako balio izan.



- Egun batean, Mozart pianista ospetsua joan zen Unairen etxera eta esan zuen:
 —Egia da Fa nota jotzen duela Unaik? Ea Unai, saiatu berriro.
 —Dooooooooo —jo zuen Unaik beste behin ere.

—Baina, Unai, hori ez da arazo bat, egia da Do nota jotzen duzula eta diapasoiek Fa nota jotzen dutela normalean, baina garrantzitsua ez da zein nota jotzen duzun, jotzen duzun nota ondo afinatuta egotea baizik.

Unai oso pozik geratu zen eta eskerrak eman zizkion Mozarti. Bera izango zen Do nota jotzen zuen lehen diapasoia! Ohore bat izango zen. Orduan amak esan zion:

—Unai, nahiz eta iruditu ez dugula ezertarako balio, hori ez da inoiz horrela; zertan garen onak jakin behar dugu. Desberdinak izateak ez du ezer esan nahi!

KATU BELTZA

Mikel Bilbao Cuesta
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Bazen behin Zamudion bizi zen Kotko izeneko katu beltz bat. Etxe baten teilatuan bizi zen. Egun batean, bi katu zuri joan ziren teilatura, eta katu beltza eta zuria borrokatu egin ziren. Kotkok borroka galdu, eta katu zuriak gelditu ziren teilatuan bizitzen.



Kotkok Bonbo katua ezagutu zuen eta zazpi kume eduki zituzten. Hiru hil egin ziren ez zutelako esnerik edateko. Orduan, teilatura bueltatzea erabaki zuten beren

etxea berreskuratzeko. Katu zuriekin borroka egin zuten. Katu zurietako bat hil egin zen, eta bestea teilatutik jausi egin zen. Orduan, Kotko eta Bonbo teilatuan bizitzen gelditu ziren.



Egun batean, kume bat desagertu egin zitzairen. Katu zuria ikusi zuten kumea eramaten. Basora eraman zuen haserre zegoelako. Kumea zuhaitz baten adarrean harrapatuta gelditu zen eta ezin zen askatu. Orduan, katu zuriak pena sentitu zuen eta lagundu egin zion. Horrela lagunak egin ziren.

Kumeak bere familiarekin egon nahi zuen eta katu zuriari esan zion. Baina katu zuriari beldurra ematen zion teilatura bueltatzeak, eta kumeak ideia bat eduki zuen: katu zuria beltzez margotzea, teilatura joateko.

Etxera heldu zirenean, beste katuak ez zeuden kumearen bila joan zirelako. Egun batzuk barru bueltatu ziren, eta kumea ikusterakoan, alaitu egin ziren. Bere lagun berria aurkeztu eta beraiekin bizitzeko baimena eskatu zien. Kotkori eta Bonbori ideia ona iruditu zitzairen, horrela gehiago izango zirelako.



Guztiak zeudela ospatzeko, Kotko eta Bonbo janari bila joan ziren. Bidean txakur batek atzetik jarraitu zien, baina oso azkarrak zirenez, zuhaitz batera igo ziren. Adarrean txori bat zegoen, eta harrapatu egin zuten. Teilatura txoriarekin itzuli ziren eta poz-pozik jan zuten guztien artean.

Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila herriko plazan.

LAILA

Malen Sagarna Villanueva
Karmelo Ikastola IPI

Laila naiz eta 12 urte ditut. Nire izenak ‘gaua’ esan nahi du. Bi neba-arreba ditut. Ahizpa ertainak Lea du izena, ‘edertasuna’ esan nahi, eta 9 urte ditu. Neba txikia Namir da, ‘bihotz onekoa’ esan nahi du, eta 5 urte ditu. Jabalian, Gazako Kostaldean, bizi gara etxetxo batean. Hemen, egunero joaten gara hondartzara edo portu aldera jolastera. Soldaduren bat ere ikusten dugu noizean behin. Pobreak gara, baina zoriontsu bizi gara.

Jabalian lagun asko ditut, baina badut lagun berezi bat Euskal Herrian. Hura ere Lea deitzen da, nire ahizpa bezala, baina ez du ‘edertasuna’ esan nahi, han erreka baten izena da. Egun batean, bere ama guri laguntzera etorri zen eta ni ezagutu ninduen. Orduan, bere alabaren emaila eman zidan, eta orain hilabetero idazten diogu elkarri.

Atzo gauean ezin izan nintzen lokartu, banekien zerbait ez zihoala ondo. Bat-batean, bonba bat erori zen auzokideen etxean, ni korrika atera nintzen ikus-tera, eta atea zeharkatu nuenean, beste bonba bat erori zen nire etxean: kea, iluntasuna, beldurra... Auzokide batzuek altzoan hartu eta beste leku batera eraman ninduten, salbu egongo nintzen leku batera.

Bi egun negarrez eman nituen, dena galdua nuen, familia barik geratu nintzen, triste. Beldur nintzen, beste bonba bat gainera eroriko zitzaidan beldur, horrela hilko nintzen beldur.

Ezin dut horrela jarraitu, zerbait egin behar dut. Ez daukat ezer, baina lagundu egin nahi dut.

Erizain laguntzaile izatea erabaki nuen. Orduan, ospitalean lanean hasi nintzen. Bertara edozein motatako jendea etortzen zen: emakume zein gizon, haur eta heldu, edozein hiri zein herrietakoak, baina denak zaurituta.

Beste herri batean laguntza gehiago behar dutela esan didate eta hara joan naiz. Bertan nire neba aurkitu dut. Nire bihotz izoztua urtu egin zait, besarkada bat eman diot eta haxe esan diot:

—Gure hiria galduta dago, Euskal Herrira joan beharko genuke, baina ez dakit han onartuko gaituzten...

Egia bada sinetsi, gezurra bada, ez sinetsi.



NESKA EUSKALDUNA

Katixa Villanueva Agirregoitia
Kirikiño Ikastola HLBHIP



Bazen behin Gipuzkoako baserri batean aitona eta amonarekin bizi zen neskato bat. Neskato horrek Nerea zuen izena, eta aitonak eta amonak euskara irakatsi zioten txikia zenean.

Urte batzuen ondoren, pisu bat erosi eta herrira bizitzera joan zen. Herria txikia eta oso polita zen. Nerea herri horretara heldutakoan, erdara euskara baino gehiago

hitz egiten zela konturatu zen. Nahiz eta oso triste egon euskara ez entzuteagatik, pisura joan eta instalatu egin zen. Egia esanda, pisua oso polita zen, Nerearen logela zen gelarik politena, berdea, gorria eta zuria zelako, Euskal Herriko ikurrina bezalakoa. Nerea bere ohean etzan zen eta pentsatzen hasi zen ea zer egin zezakeen jendeak euskaraz hitz egiteko.

Ez zeukan ideiarik ere, eta horrela egon zen 3 astez, pentsatzen eta pentsatzen, baina ez zitzaion ezer bururatzen.

Orduan, Afrikara bidaiatzea erabaki zuen, beti oso gustuko izan zuelako. Bidaia oso laburra egin zitzaion, nahiz eta 15 ordukoa izan. Oso emozionatuta zegoen, bakarrik egiten zuen lehenengo bidaia zelako. Afrikara heldu zenean konturatu zen taldeka jolas eginez erakusten zietela ume txikiei afrikar hizkuntza bat. Horrela ume txikiek azkarrago ikasten zuten.

Nereak ume txikiei begiratu zien, eta konturatu zen asko disfrutatzen zutela eta oso adi zeudela ikasteko metodo horrekin. Ikaragarri disfrutatu zuen bidaiaz, eta Gipuzkoara bueltatzean, Afrikan ikusi zuen metodoa irakatsi zion jendeari.

Bidaiatzen jarraitu zuen urteetan zehar. Handik urte batzuetara, bidaia batetik bueltatu zenean, plazan jendea euskaraz ari zela entzun zuen. Nereak ezin zuen sinetsi eta jendearengana hurbildu zen ea egia zen edo bere imajinazioa zen ikusteko; eta konturatu zen ez zela bere imajinazioa. Oso pozik bueltatu zen etxera.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Mikoletako plazan.



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



NIRE BARNEKO TRAGANARRUA


Markel Urkiaga Tellería
La Salle Bilbao HLBHIP

Zorionez, heldu zen hainbat denboran itxaroten nengoen eguna! Ekainaren azken astean geunden eta LH 5. mailako ikasketak amaitu berri nituen. Hainbat aldiz nire gurasoek agindu zidaten mugikorra nire eskuetan neukan. Izan ere, gurasoen artean ohikoa zen Lehen Hezkuntzako bosgarren maila amaitu ondoren mugikorra oparitzea.

Momentu horretan nire herriko umerik zoriontsuena nintzen, eta ez nuen beste ezeren beharrik; baina egun horretan, konturatu gabe, nire bizitza guztiz aldatu zen. Gertatutakoa ez sinisteko modukoa izan zen.

Mugikorra estreinatu nuen egunean nire lagunekin batzen nintzen topalekura joan nintzen harro-harro markako mugikorrarekin. Lagunek ere mugikor berdina zeukaten, hau da, sagartxodun mugikorra.

Egun horretan, nahiz eta oso pozik egon, lagun taldeko giroa guztiz aldatu zen. Ez genuen ez saskibaloira ez futbolera jokatu. Eta nire lagun onenak ziren Unaxekin eta Aiurrekin izaten nituen elkarriketak pikutara joan ziren.



Lagunak agurtu eta gero, etxera heldu nintzen eta amaren hitza bete beharrean, nire logelan ezkutatu eta ohe gainean mugikorra aurrean dela jarraitu nuen, aitak harrapatu ninduen arte.

Momentu horretan hasi zen nire Barneko Traganarrua martxan. Sekula sentitu gabeko sentsazioa neukan sabelean. Mugikorra aitak zeukan eta nire helburu bakarra mugikorra berreskuratzea zen. Ez neukan beste ezer buruan. Ez zitzaidan beste ezer inporta: ez nire arreba txikia, ez nire lagunak, ez nire liburu gogokoenak, ez nire gurasoen kontuak...

Lagunekin plazan jolasten eta hizketan egon beharrean, mugikorrari begira pasatzen nituen orduak. Nire Barneko Traganarrua guztiz zitala zen eta nire betiko lagunetatik gero eta gehiago urruntzen ninduen. Baina Lagunen Traganarruek ere berdin jokutzen zuten. Horrela, asko gustatzen zitzaizkigun jolasak eta elkarrizketak alde batera utzi genituen eta arratsaldero plazako jesarleku luze batean jesarri eta bakoitza bere mugikorrari begira egoten ginen. Momentu horietan nahiago genuen ezagutzen ez genituen Youtuber-en bizitzak jarraitu, gure lagunen gorabeherak entzun baino.



Etxean nuen jarrera ere guztiz aldatu zen. Beti nengoen nire arreba txikiarekin haserre, eta gurasoekin ez nuen elkarrizketarik izaten. Horrela pasatu ziren hainbat egun eta gau. Baina egun batean, nire ama bat-batean nire logelara sartu zen eta hurrengo hau esan zidan:

—Aizu, Markel, mugikorra daukazunetik guztiz aldatu zara. Mutil alaia eta maitekorra izatetik beti haserre dagoen mutiltxo bat izatera pasatu zara. Ez duzu ezer kontatzen eta zure familiak faltan botatzen zaitu. Beti zaude mugikorrari lotuta, eta horrek ezin du horrela jarraitu!

Aita eta biok hizketan egon gara eta mugikorra kentzea adostu dugu.

—Ama hori ez da egia! Gezurretan ari zara! —oihukatu nuen.

—Bai, maitea... —erantzun zidan.

—Ezetz! Galdetu nire lagunei! —esan nion.

—Begira, Markel, mugikorra kenduko dizut eta ea zer gertatzen den ikusiko dugu.

—Ama, hori ez da bidezkoa! Oso gaiztoa zara! Munduko amarik gaiztoena zara! Sorgin halakoa! —oihukatu nuen.

Nire Barneko Traganarrua ni baino boteretsuagoa eta indartsuagoa zen eta nire amari inoiz esan ez nizkion hitzak oiuhukatu nizkion. Logelan sartu nintzen, ez nuen inorekin hitz egin nahi. Ez nuen kalera atera nahi, ez bainuen nire taldean ezberdina izan nahi; hau da, mugikor gabeko mutil bakarra. Nire bizitza guztiz amaitu zelakoan nengoen. Ez nuen nire amaren erabakia ulertzen. Gorrotoa nion amari momentu hartan. Baina nire ama gaiz-



toaren plana ez zen horrekin bukatu! Nire ama sorginak lagunekin kalera irtetera behartu ninduen.

Arratsalde guztiz zaila izan zen, lagun guztiak beraien mugikorreki begira zeuden niri kasurik egin gabe eta. Ordu batzuk lagunei begira pasatu eta pilo bat aspertu ondoren, ni baino gazteagoak ziren neska-mutiko batzuekin hasi nintzen futbolean jolasten, herriko plazan. Horrela pasatu nituen aste pare bat. Lagunak alde batetik mugikorrekin, eta ni beste alde batetik gazteagoekin futbolean edo saskibaloian jokatzen.

Lagunen gurasoek, gertatzen ari zenarekin konturatutakoan, ama maltzurak hartutako erabaki berdina hartu zuten, hau da, beraien seme-alabei mugikorrak kentzea.

Nire ama sorginak lagunak amak ere sorgin maltzur bihurtu zituen, eta lagunak ere mugikor gabe gelditu ziren.

Lehenengo egunak ez ziren batere errazak izan. Gure ohiturak guztiz aldatuta zeuden eta ez genekien zer egin kalean mugikorrik gabe. Gure Barneko Traganarruak mugikorraren beharrezana eragiten zigun eta ez genuen oso ondo pasatzen. Guztiz aspertzen ginen. Baina lehenengo egunak pasatu eta Traganarrua kontrolatu ondoren, gure bizitza alaiak berreskuratu genituen.

Elkartzeko ordu bat jartzen genuen egunero, eta orduak pasatzen genituen txistek kontatzen eta futbolean jokatzen gure herriko plazan. Youtuberren bizitzak eta gorabeherak alde batera utzi genituen eta gure lagunak eta familien kontuak bueltatu ziren garrantzitsuena izatera.

Nire Barneko Traganarrua gaingitu nuen egunean konturatu nintzen nire amak egindako lana zoragarria izan zela. Nire ama ez zen ipuinetako sorgin gaiztoa, pelikuletako superheroi ausarta baizik! Eta superheroi horren laguntzaz betiko ume bizitza eta familia berreskuratu nituen, eta bizitza guztian eskertuko diot.

Lurperatu ditzagun Traganarruak! Gora Superheroiak!



OGI ETA OIHAL ARTEA

Sare Urizar Asensio
Karmelo Ikastola IPI

Kaixo, Manon Bernand Du Pont naiz, baina guztiek deitzen didate Bernie. Frantzian bizi naiz, Parisen, Rue Montorgueil-eko okindegi txiki batean.

Nire gurasoak bananduta daude. Lau urte nituenean banandu ziren, ama lesbiana zela konturatu zenean. Ni ez nengoen triste; baina nire *père* (aita, frantsesez) txoro baten moduan jartzen da horretaz hitz egiten dudanean.

Bueno, nire familiarekin bizi naiz. Alaba bakarra naiz, baina nire *cousinerekin* (lehengusina, frantsesez) pasatzen dut eguna; 20 urte dituen arren, nirekin egoten da. Esan nahi dudana da oso ondo bizi naizela.

Nire familiako guztiak okinak dira, eta hori da nire etorkizuna. Bizitza osoan eduki dut argi nire etorkizuna horrek izan behar zuela. Baina, orain, hamahiru urte beteko ditut, eta ideiaz aldatzen ari naizela uste dut. Diseinatzailea izan nahi dut.

Gaur, afaltzeko orduan, mahaian eseri gara familia osoa, eta guztiok isilik geundenez, galdera bat egin diot *pèreri*:

—*Père*, lagun batek laguntza eskatu dit, zeren eta berak zapataria izan nahi du, baina bere familiako guztiak merkatariak dira, eta bera ere merkataria izan behar dela esan diote. Zer egin behar du?

—Bere ametsa utzi, guk egin dugun bezala, bestela ez da familiakoa izango eta ezingo du familiako abizena izan.

—Baina, berak hori nahi du...

—Baina bere familiak ez, eta kitto.

—Baina...

—Zelan eguna, Bernie? —esan du *cousinek* tentsioa baretzeko.

Nik ez nekien zer egin, eta amorratuta eta isilik igaro dut afaria.



Gelara heldu eta itsulapikoa apurtu dut 11,46 euro ateratzeko, eta leihotik atera naiz etxe ondoan dagoen oihal dendara joateko. Bertan nagoela, oihal asko erosi ditut, baita orratza eta haria ere. Ohe ondoan daukadan mahai txikiaren kaxoian sartu ditut eta lotara joan naiz. Bihar hasiko naiz.

Hurrengo egunean *cousinek* esnatu nau.

—Zure “lagun” hori zu zinen, ezta? —esan dit ohean esertzen den bitartean.




—Eeeee, eeeeezzz, nolatan izango naiz ni? —esan dut nik.

—Zure *père* engainatuko duzu, baina ni ez —esan dit.

—Ados, bai, ni nintzen. Diseinatzailea izan nahi dut. Atzo gauean materiala erosi nuen —esan diot kaxoia zabalduz.

—Bada, egia esan, nik badakit josten, eta erakutsi egingo dizut —esan dit oihalak begiratzen dituen bitartean.

—Ados! —erantzun dut pozik.



Hurrengo gauean, afalostean, josten erakusten hasi da; eta hurrengoan, eta hurrengoan, baita hurrengoan ere. Horrela hilabete batez.

Kalean poltsak eta txanoak saltzen aritu naiz, ezkutuan; eta, behin, josteko dendaren ondoan saltzen nagoela, dendako neskak opari bat egin dit: josteko makina bat da!

Urduri nago, eta etxera eraman dut kaxoian sartzeko. Gauean, *cousine* etorri denean, irrikaz erakutsi diot, eta josten erakutsi dit.



Hilabeteak pasatu dira, eta, azkenean, urtea joan zaigu. Abenduaren 25ean opariak zabaldu ditugu, eta nik jostailuzko okindegi bat izan dut opari.

—Begira! Ikasteko zoragarria da! —esan du *pèrek*.

—Bai, oso polita da, Bernie! —esan dit *cousinek* adarra jo nahian; eta nik mihia atera diot.

Gauean, *cousine* logelara etorri denean, malko bat zuen masailean. Izututa galdetu diot:

—Zer gertatu da?

—Unibertsitate batera joateko beka bat eman didate —kontatu dit negarrez.

—Baina hori ona da, ezta? —galdetu diot, arduratuta.



—Bai, bada, oso pozik nago, baina...

—Baina, zer?

—Oso urrun dago, eta lau urtez egongo naiz kanpoan.


—Ai ez... ez nengoen prest hau esateko, baina: zu oso pertsona ona zara, asko ikasten duzu, eta asko laguntzen duzu. Orain erabakitzeke momentua heldu da, eta zuk aukeratu behar duzu.

—Nik joan egin nahi dut, baina zu...

—Ez arduratu nitaz, ni ondo egongo naiz.

—Ados, *cousine*, asko maite zaitut —esan dit besarkada bat emanez.

Azkenean, joan egingo da; eta poltsa bat egin diot bere izenarekin, aireportura joan eta agur esan diogu elkarri.




Etxera heldu naizenean, nire gelako atea zabalik ikusi dut, eta arraroa egin zait. Bertan *père* dago, oihalak eskuan dituela. Haserre hurbildu zait:

—Zer da hau guztia? Zu zinen zure “laguna”, ezta? Familiari gezurra esan diozu, ezta? Zu al zara gure Manon? —esan dit niri hitz egiten utzi gabe.

—*Père*, azalduko dizut, benetan, lasaitu zaitez.

—Lasaitzeko? Zu ez zara familiakoa, zu ez zara Bernand bat!!!

Negarrez sukaldara joan naiz, eta nire familia *père* lasaitzen saiatu da. Azaldu diote, agian, familian baten batek beste lan bat egin dezakeela.



Hilabeteak pasatu dira *pèrerekin* batere hitz egin gabe. Eta, halako batean, gelara etorri eta hau esan dit:

—Manon, pentsatzen egon naiz, eta zuk nahi duzuna izan ahal zarela konturatu naiz, beraz, zure ametsa jarraitu dezakezu —esan dit.

Ni aho zabalik geratu naiz.

Gaur nire urteguna da. Ama, aita, osabak, izekoak eta nire amaren neska laguna daude. Gutun bat eman didate, eta barruan udan josten ikasteko udaleku baterako joateko opari-tiketa dago.

—Mila esker! —esan dut harrituta.

Oparia asko gustatu zait, baina gehiago nork oparitu didan.

TITULUA AMAIERAN

Ane Martínez Revuelta
Deustuko Ikastola IPI

—XABI!!!!!!!

—Zeure errua da!

Seguru ez duzuela ezer ulertu. Hasieratik hasiko naiz:

Kaixo, Xabi naiz eta 8 urte ditut; baina, nire anaiak beti esaten du 7 urte ditudala oso baxua naizelako. Dena dela, hori ez da gaurko istorioa. Gaurko istorioa orain dela...

—Ama! Noiz izan zen azkenengo margolaritzako klasea?

—Orain dela 2 aste.

—Eskerrik asko, ama!

... Orain dela 2 aste gertatu zen:

Margolaritzan nengoen nire lagunekin: Unai, Jone eta Nagore.

Unai: oso lagun ona da, altua eta txakurzalea (3 txakur ditu).

Jone: oso lagun ona da, lauretatik Jone eta ni baxuenak gara eta Jone oso ospetsua da ikastolan (futbolean makina hutsa da).

Nagore: oso lagun ona da, oso barregarria eta irakurtzea maite du (41 liburu ditu etxean).

Margolaritzako irakasleak taldeetan jarrita mural bat egin beharko genuela esan zigun. Ondoren, irribarre egin eta hauxe esan zuen:

—Zozketaz erabakiko dugu zein teknika erabilita egingo duzuen talde bakoitzak murala. Taldean, 1etik 4ra arteko zenbaki bat erabaki behar duzue. Hasi!

—Ea, talde horretan, zein da aukeratu duzuen zenbakia?

—2a.

—Talde honetan, zuen zenbakia!

—4a.

—Zuenean?

—1a.

—Eta azkenik, zuen taldean!

—3a. (Horiek gu ginen).

Orduan, papertxoetan zenbakiak ipini zituen irakasleak, eta edalontzi batean sartu zituen zozketa egiteko.



—Lehenengo taldeak, 4 zenbakidun taldeak, akuarelarekin egingo du murala!

—Hurrengo taldeak, 1 zenbakidunak, olio-pinturarekin!

—Hurrengoak, 3 zenbakidun taldeak, puntillismoa teknikarekin!

—Eta azkenengoak, 2 zenbakidun taldeak, tintarekin egingo du!

Ondoren, talde bakoitza liburu baten bila joan ginen, tokatutako teknikarekin zelan margotzen zen jakiteko.

—Guri beti zailena, benetan!

—Lasai, Unai, liburuan daukagu behar dugun informazioa —esan zion Jonek.

—Puntillismoa: puntutxoekin osatuta dagoen marrazki bat da —hasi zen Nagore irakurtzen.

Paperaren bila joan nintzen, eta bitartean, besteak materialaren bila.

—Unai, Nagore, zer behar dugu puntillismoa egiteko?

—Oskolak behar ditugula ipintzen du hemen, baina, hemen ez dugu oskolik.

—Makilatxoak ere erabil ditzakegu. Unai, paragrafo osoa irakurri behar duzu.

—Bai, baina, oso luzea da!

—Unai, alferrontzi hori!

—Nagore, Unai, lanera!

Ni, bitartean, papera bilatzen nenbilen. Paperaren gelan 100 paper mota baino gehiago daude.

Material guztiak lortu genituenean, lanean hasi ginen:

—Zer margotu dezakegu? —galdetu nuen.

Handik gutxira Nagorek hau esan zuen:

—Zer iruditzen zaizue paisaia bat margotzen badugu? Hala nola, mendi bat artzain batekin eta bere ardiekin?

—Ondo! Bai! Polita! —esan genuen banan-banan.

—Orduan hori egingo dugu!

Hasteko, koloreen bila joan ginen.

—Berdea, urdina, horia, beltza, laranja...

—Zenbat kolore, Jone!

—Guztiak erabiliko ditugu? —galdetu nuen.

Bai, polit-polita geratu behar da —esan zuen Jonek harro-harro.

Denak barrezka hasi ginen.

Hasteko, arkatz batekin marrazkiak egin genituen; gero, puntutxoekin hasi ginen.

—Puntu berde bat hemendik, puntu hori bat hemendik eta puntu urdin bat hemendik! —abesten zuten bitartean.

—NAGORE!!! —esan genuen hirurok batera.

—Zer? —erantzun zuen.

Eta berriro barrezka hasi ginen.



Amaitzeko, beste taldeen aurrean gure muralaren deskripzioa egin genuen.

—Gure murala lasaia da eta kolore argiak ditu, marrazkiaren puntutxoak egiteko makilatxoak erabili ditugu.

Eta gero, erakutsi egin genuen. Oso politak ziren mural guztiak, bat izan ezik. Saioa amaitu baino lehen, hauxe esan zuen maisuak:

—Bi aukera dituzue: murla hemen utzi edo taldeko batek bere etxera eramatea. Zer erabakiko duzue? 2 minutu dituzue. Pentsatu!

Bi minutu geroago talde guztiok geneukan galderaren erantzuna.

Talde batek murla gelan utziko zuen (ulertzen dut, oso itsusia geratu zen), eta besteek etxera eramango genuen (tintaduna ederra zen, eta akuarelaz egindakoa oso interesgarria).

Murla etxera nork eramango zuen erabakitzeke, Unairen etxera joan ginen:

—Nork eraman nahi du etxera? —galdetu zuen Nagorek.

Orduan, guztiok altxatu genuen eskua aldi berean, Jonek izan ezik, segundo batzuek pentsatzen geratu baitzen. Azkenean, berak ere eskua altxatu zuen.

—Murla lau zatitan banatuko al dugu? Horrela bakoitza zati batekin geratuko da —proposatu zuen Jonek. Baina guztiok ezetz esan genuen buruarekin.

Gero hau esan nuen:

—Imajinatu muralak xurgatu egiten gaituela eta muralaren barrura sartzen garela!

—Xabi, ez esan tontakeriarik! —esan zidan Unaik.

—Hori da! Gu pentsatzen eta zu tontakeriak esaten. Ez da bidezkoa! —esan zuten Jonek eta Nagorek.

Baina bat-batean murla gu xurgatzen hasi zen.

—AI AAAAA! —oihukatu genuen guztiok batera.

Orduan, Unairen ama logelan sartu zen korrika; baina, berandu zen, gu muralaren barruan geunden. Unairen amak, murla lurrean ikustean, paretan eskegi zuen.

Eta zati hau ezagutzen duzue:

—XABI!!!!!!!

—Zeure errua da!

—Zergatik?!

—Zuri bururatu zaizu. Eta begira non gauden!

—Adi guztiok —esan zuen Nagorek.

—Gure murla kanpotik ikusten den baino handiagoa da. Dena puntutxo eginda dago!

—Egia! Ikusi ardiak mendian!

—Eta txoriak zeruan! —denok zerura begira geratu ginen.

—Ez! Nire txakurrak ere sartu egin dira. Uda, Kar, Hosto, etorri hona!

Txakurrak korrika etorri ziren eta bata bestearen alboan eseri ziren.

—Nola aterako gara hemendik? Hau ikaragarria da, baina, gure bizitzak marrazkitik kanpora daude! —esan zuen Unaik oso urduri.

—Bi aukera ditugu: hemendik atera edo hemen geratu bizitzen.

Txantxetan esan nuen, baina, Unaik zera esan zuen:

—Hemendik atera behar dugu!

—Lasai, Unai, hemendik aterako gara.

Ordu erdiz egon ginen ateratzeko modua bilatzen.

—Agian, mendi tontorrera igotzen bagara... —esan zuen Nagorek ahopeka. Uste dut ez zuela kanpora atera nahi.

Ostean, mendia igotzen hasi ginen. Mendia oso-oso altua zen.

—Zergatik egin dugu mendi hain altua? Nor izan da hain tontoa? —galdetu zuen Jonek.

—Jone, zuk esan zenuen horrela egiteko.

Eta berriro barrezka hasi ginen.

Txakurrak eta ardiak mendian bazkatzen hasi ziren. Eta artzainak zera esan zigun:

—Txakurrak zuenak dira?

—Bai —erantzun genuen.

—Oso artzain txakur onak dira —erantzun zuen artzainak.

—Pasa den urtean lehiaketa batera joan ziren, eta 1. postuan geratu ziren.

—Benetan?! Nire txakurrak hemengo onenak dira.

—Orduan guk biok ditugu artzain txakurrik onenak!

—Hori da!

—Barkatu, baina, gure bidaia jarraitu behar dugu. Agur!

—Agur!

Ordubete geroago tontorrera heldu ginen, eta bertatik paperaren amaiera ikusten zen. Salto egin genuen eta... Bat-batean logelaren alfonbran agertu ginen. Murala lurrean zegoen eta ez paretan. Uda, Kar eta Hosto ere muraletik kanpora atera ziren.

Beti geratuko zaigu galdera bat:

AMETS BAT IZAN AL DA?

ZERRENDA LUZEA

Jon Oleagoitia Ruano
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Orain dela mende pare bat, neguko egun euritsu batean, bazen Sabin izeneko mutiko bihurri xamar bat.

Abenduaren 24a, Gabonak:

Sabinen iratzargailuak jo zuenerako, Sabin jada ohetik jaikirik zegoen. Logelatik irten baino lehen, aharrausi txiki bat egin zuen, eta orduantxe ohartu zen egunaren garrantziaz. Eskailerak korrika jaitsi zituen haxe esanez:

—Gabonak, Gabonak, Gabonak...

Deskuiduan gurasoen logelara sartu zen, eta bihurrikeria pare bat egiten hasi zen. Ohera igo eta saltoka hasi zen, eta ondorioz, altzarietan zeuden objektu mordoa erori egin ziren. Gurasoak botaka egiteko zorian zeuden, protagonistak saltoka jarraitzen zuen bitartean. Urtero berdina sufritu beharraz kexatu ziren biak.



Sabinen ezpaineak irribarre dirdiratsu bat marraztuta zutela, hauxe esan zuen:

—Aita-ama, Eguberri oooooooooooooooooooooon!

Amak nahikoa zela esan bezain pronto, isiltasuna nagusitu zen.

Sabinek ikaratuta alde egin zuen. Baina berehala ahaztu zitzaion hartutako sustoa. Eta galdezka hasi zen:

—Ama, aita, non dago nire Eguberriko gosaria?

—Zer? —galdetu zuten gurasoek, elkarri keinu txiki bat eginez.

—Laztana —erantzun zion amak —ez dugu ogi txatalik ere erosi. Sentitzen dut.

—Baina, ama, nik Eguberriko gosaria nahi dut —erantzun zion semeak erdi negarrez.

—Mesedez, ama, mesedez...

—Ez! —erantzun zion amak erdi garrasika.

Ondoren, baietz ezan zuen muturtuta.

Ordu erdi geroago sartu zen esne eta opiltxoekin ama sukaldera, eta garrasi egin zuen konortea galtzeko moduan:

—Sabin, zergatik ez duzu mahaia ipini?

Eta Sabinek hau erantzun zuen:

—Mahaia ipini behar bada, ez noa gosaltzera.

Eskailetatik igo zen pauso sendoekin, eta logelara sartzerakoan, ateari bultzakada bat eman zion haserre handiz. Erdi negarrez ohean etzan eta hauxe esan zuen:

—Orain gurasoak haserre daude, baina hemendik aurrera ahal dudan guztia egingo dut.

Gure mutilak beste hitz bat esan orduko, ama sartu zen gelan, nahiko haserre:

—Sabin!!! Zer egiten duzu eguerdian ohean? —errieta egin zion amak.

Gure protagonistak burukoarekin estali zituen belarriak, zurrumurruak baino ez zituen entzuten. Eta errietaren ondorioz, iritzia aldatu zuen: jada ez diet kasurik egingo!

Gixajoak atsedena behar zuen. Geroago, malko eder bat begien artetik jausten ari zitzaiola, lo geratu zen, burua nahasturik. Halako batean, aita etorri zitzaion hitz egitera:

—Sabin, laztana, ama sutan dago zurekin. Ezin du ulertu nola izan zaitezkeen hain alferrentzia —esan zuen atsekabetuta.

Aita beste malko batekin irten zen logelatik.

Hurrengo egunean amets gaizto bati esker esnatu zen Sabin; eta ohetik jaiki zen guztiz emozionaturik.

—Opaaaaaaaak! —zarataka joan zen sutondora. Atea ireki zuen, opari mordo zegoen zuhaitzaren beheko aldean eta berea bilatzen hasi zen:

—Ai ene!! Ez dut nirea aurkitzen!!

Opari guztiak begiratzea erabaki zuen, baina alferrik. Bat-batean beraren izena zerman bat aurkitu zuen zuhaitzaren beheko aldean:

—Zer! Hau ez da posible! Nik gauza erraldoiak eskatu nituen, baina opari hau oso txikia da.

Postaltxo bat zen eta irakurtzen hasi zen. Hauxe zegoen bertan idatzita:

Sabin, maitea, Olentzero eta Mari Domingi gara. Bai, biok elkarrekin egiten dugu lan aspalditik. Zuk, ume askok bezala, uste duzu beti eramango dizkizugula opariak, zure jarrera egokia ez bada ere bai. Zure gurasoak kokoteraino daude ez duzulako etxeko beharrik egiten. Eta gainera, eskolara ere denbora pasatzera joaten zara. Ez, laztana, ez. Ezin da horrela izan. Aurten ikatza baino ez dizugu utziko.

Maitasunez,

Olentzero eta Mari Domingi.

Gure Sabinekin hamaika aldiz irakurri behar izan zuen eskutitza. Negar batean hasi zen. Eta egun horretan, gure mutila ez zen etxetik atera, hain handia zen atsekabea, ezin izan zuen altxatu, jan edo jolastu.

Hurrengo egunean, atea jo zuten, eta bere lagun guztiak agertu ziren.

—Sabin, bazatoz mendira gaztainak batzera? —galdetu zion Galderrek.

—Ez. Ez noa inora —erantzun zion tristuraz, eskutitza erakutsiz.

Umeek ezin izan zuten sinistu Olentzeroren eta Mari Domingiren hitzak zeuzkatela aurrean.

—Harrigarria da! Zu bai mutil zorteduna, Olentzeroren eta Mari Domingiren eskutitza jaso duzu!

Sabin pentsakor geratu zen goiz osoan. Eta halako batean, eskularruak eta lepokoa harturik etxetik korrika atera zen mendira, lagunak han zeuden eta.



HONDARTZA GARBIAK

Oa Goenaga Gallastegi
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Udako egun eguzkitsu batean, Donostiako Gros hondartzan, Nora entrenatzen ari da. Norak gimnasia artistikoa egiten du Split akademian. Horregatik, goizero-goizero hondartzara joaten da entrenatzera.

Norari gimnasia artistikoa asko gustatzen zaio. Arrazoi batengatik gustatzen zaio, bere ametsa txiki-txikitatik gimnasia artistikoko profesionala izatea delako. Oraindik ere bere ametsa izaten jarraitzen du. Nora, ile luze eta begi berdedun neska da, argala, baina sendoa eta indartsua. Gustuko du lagunekin eta familiarekin egotea.

Gaur ez da beste entrenamenduak bezalakoa izan. Gaur, mutil bat uretatik ateratzen ikusi du surf taula batekin. Mutil horrek Luken du izena. Nora bezala, goizero-goizero entrenatzera joaten da Gros hondartzara. Lukenek ez du gimnasia artistikoa egiten, surfa egiten du. Bere ama, Garazi, surflari profesionala zen. Hil egin zen auto istripu batean, eta hil aurretik Lukenek zin egin zion bera bezain ona izango zela. Horregatik, egunero-egunero topera ibiltzen da surfean. Luken mutil jatorra da, begi marroiak ditu eta ile laburra. Izozkiak asko gustatzen zaizkio eta irakurtzea ere bai.

Egun horretan, Luken uretatik irteten ari zenean, taula erori zitzaion eta Norak lagundu egin zion. Horrela ezagutu zuten elkar, eta lagun egin ziren. Orduan,

Lukenek Norari surf egiten erakutsiko ziola esan zion, eta Norak eskaintza onartu egin zuen.

Nora oso txarra zen surf egiten, eta uretan barre itzelak egin zituzten. Baina nazkatu egin zen eta gimnasia artistikoa erakutsiko ziola proposatu zion Lukeni. Mutilak zaila ikusten zuen aukera hori, halere, baietz esan zion. Harea asko irentsi zuen, baina barre asko egin zuten. Eta horrela pasatu ziren asteak eta asteak, bakoitza bere kasa entrenatzen, serio hartuta. Ondoren, egunero, zeozer hartzera joaten ziren elkarrekin The Loaf tabernara. Norak rooibos infusioa hartzen du, eta Lukenek kafea eta txokolatezko cookie bat, erdibana Norarekin. Azkenean oso lagun onak egin ziren.

Handik urte batera, Luken Bermeora bizitzera joan zen, aitag han lan hobea aurkitu zuelako. Nahigabe handia izan zuten bai Norak, eta baita Lukenek ere, ezingo zutelako elkar ikusi goizeko entrenamenduetan. Urteak pasa ahala, elkar ikusteko geroz eta aukera gutxiago zuten, eta biak oso triste bizi ziren.

Hamabi urte pasatu eta gero, Luken Bermeoko hondartzan surfeatzen ari zela, itsasoa desberdin zegoela ikusi zuen, kutsatuta. Handik hiru egunetara, olatu izugarri bat hartu nahian, uretan flotatzen zegoen hozkailu baten aurka jo eta konortea galdu zuen. Gizon batek ikusi eta berarengana hurbildu zen, mutila hartu eta hondarretara eramateko. Korrika batean sorosleengana joan zen, eta gertatutakoa kontatu zien.

Orduan, sorosle batek anbulantziari deitu zion, eta bestea Lukenengana joan zen. Anbulantzia etorri bitartean, sorosleek ikusi zuten Lukenek zauri oso-oso itsusia zuela, eta sendatzen ahalegindu ziren. Sorosleetako bat, anbulantzia autoa ikusi bezain pronto, oihuka hasi zen anbulantzia berarengana hurbiltzeko. Anbulantziako



gidariak ikusi zuenean, hurbildu egin zitzaion eta sorosleari galdetu zion ea zer gertatu zen. Erizainak, bitartean, Luken artatu zuen gizonaren laguntzaz, eta beste soroslea, gerturatzen ari zen jendea urruntzen hasi zen. Gizonak gertatutakoaren azalpenak eman zituen; Luken uretan konortea galdurik ikusi zuela eta horregatik ekarri zuela hondartzara. Bi erizainak ospitalera joan ziren Lukenekin.

Luken ospitalean esnatu zen eta bere buruari galdetu zion ea zer gertatu zen. Nora, gertatutakoa jakin bezain laster, ospitalera joan zen ea Luken nola zegoen jakitera. Iritsi zenean, besarkada bat eman zion. Eta besarkadaren ondorioz, Lukenek dena gogoratu zuen, eta esan zion hozkailu baten aurka talka egin zuela. Momentu hartan, erizaina sartu eta esan zion ezingo zuela surf gehiago egin, eta Luken negar batean hasi zen. Nora beraren ondoan geratu zen egoera gainditzen laguntzeko.

Asteak eta asteak eman zituen Lukenek ospitalean, baina azkenean, alta eman zioten eta, egoera ikusita, hondartza zikinak garbi mantentzeko talde bat sortzea erabaki zuen. Azkenean, Norak ere uko egin zion bere karrera artistikoari, Lukenek sortutako taldean sartzeko. Pertsona asko batu ziren taldera. Ordutik, hondartzak gero eta garbiago zeuden.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila Donostiako Gros hondartzan.

ABENDUKO MAHATSAK

Mikel Larrañaga Martínez
Deustuko Ikastola IPI

2020. urteko abendua iritsi zen, eta urtero bezala, Euskadiko familia guztiak Urtezaharra ospatzeko irrikan zeuden.

Deustuko San Pedro plazan, Xabi, Leire, Ekain eta Izaro elkarrekin geratu ziren, baina gurasoek musukoa jarrita eramateko esan zieten, bizi zuten pandemia ikaragarriarengatik. Elkarri kontatu zioten zein opari ekarri zizkien Olentzerok, baina denak nahiko triste zeuden ezin izan ziotelako euren gutuna eskura eman. Zorionez, oraindik urte amaiera ospatzea geratzen zitzaien eta supermerkatu elkarrekin joatea erabaki zuten Urtezahar gauerako mahatsak erostera. Alabaina, supermerkatu guztiak arakatu zituzten arren, ohartu ziren Deustu osoan ez zegoela mahatsik! Hori dela eta, auzoko fruta dendan galdetzea pentsatu zuten, baina Pernando dendariak azaldu zien Euskadiko mahats guztiak agortuta zeudela eta familia guztiak oso triste jarriko zirela Urtezaharreko kanpaikadak ezingo zituztelako behar bezala ospatu. Hori entzundakoan, lagun guztiak burumakur jarri ziren, pasatutako urte gogorra eta gero ezingo zutelako azken momentua bere aitona eta amonekin gustura ospatu. Eztabaidatzen hasi ziren denak:

—Nola liteke Deustu osoan eta agian Euskadi guztian mahatsik ez egotea? Konponbide bat bilatu behar dugu familia guztientzat! —esan zuen Xabik.

—Ados nago zurekin, Xabi! Zerbait egin behar dugu. Zergatik ez dugu trenez txango bat egiten Euskadiko herri guztiak arakatzeko? —esan zuen Leirek.

—Bikain! Ordu erdi barru aterako den trenean geratuko gara eta elkarrekin txango bat egingo dugu Euskadiko dendetatik mahatsak bilatzeko eta gero banatzeko —erantzun zuen Ekainek.

Esan eta egin. Lagunak etxera joan ziren motxilak prestatzera, eta segituan Boluetako trena hartu zuten abenduko mahatsak berreskuratzeko. Geltokiz geltoki eta herriz herri joan ziren, eta inon ere ez zuten mahatsik ikusi. Bidea eginez lau lagunak Donostiaraino iritsi ziren. Harrituta gelditu ziren zenbat apaingarri zeuden ikusita. Argi asko zeuden, baina mahatsen arrastorik ere ez. Plazak, elizak, frontoiak, tabernak, hondartzak... Leku guztietatik igaro ziren, eta gero eta nekatuago zeuden. Ia etsita. Horregatik, taberna batera sartu ziren deskantsatzera. Izaro tabernako leihoari begira erdi lo zegoen bitartean, tabernaren kanpoaldean zerbaitek harrituta utzi zuen. Mahatsak zituen dendatxo bat zegoen beraien sudurren aurrean! Denak abisatu zituen eta batera irten ziren dendari haren postua ikustera. Fruta freskoa zuen dendatxo bat zen, bere sagar, banana eta baita mahatsekin ere! Denak txundituta zeuden eta mahatsak nondik atera zituen galdetu zioten dendariari.

—Aizu, dendari jator hori. Nondik atera dituzu mahats goxo horiek? —galdetu zion Leirek.

—Kaixo, neska-mutilak. Mahatsak gustuko dituzue? Bada, zorionez eta txiripaz topatu ditut mahats hauek gaur goizean. Nire frutak antolatzen ari nintzen eta penatuta nengoen azken egunetan ez didatelako mahatsik ekarri. Baina, ustekabean, gaur goizean kamioi handi bat nire denda aurretik igaro da, eta, kurba hartu duenean, mahats-kaxa hau erori zaio nire denda parean —erantzun dendariak.

—A bai? Eta nolakoa zen kamioi hori? Ikusi duzu gidaria, edo baduzu pistaren bat kamioiaren matrikulaz edo jatorriaz? —galdetu zuen, orduan, Izarok.

—Matrikulari buruz ez dakit ezer, baina gidaria oso bitxia zen. Txapela zeraman eta oso tripontzia zela zirudien. Famaturen baten antza zuen, baina ez dakit norena —esan zien dendariak.

—Eskerrik asko pistarengatik, eta urte berri on!! —gaineratu zuen Ekainek.

Lau lagunek errepideari jarraitu zioten kamioi misterioitsu horren inguruko beste pistaren bat topatzeko; eta hurrengo bidegurutzean mutil gazte bat ikusi zuten akrobaziak egiten. Baina hori ez zen deigarriena; izan ere, mutil horrek akrobaziak mahatsekin egiten zituen! Horra hor beste pista bat.

—Kaixo! Nola liteke mahatsekin horren akrobazia ederrak egitea? Esango zeniguke, mesedez, nondik atera dituzun fruta horiek? —esan zion Izarok.

—Eguerdian kamioi handi bat gelditu da akrobaziak egiten ari nintzen bidegurutzean, eta bat-batean itxura txarreko gizon lodi bat jaitsi da kamioitik, bizkarrean mahatsez betetako zaku handi bat zeramala. Aurpegia zikin-zikin zeukan eta ardo-kiratsa ere bazuen. Nire ustez lapurra zen! Eta lapur bati lapurtzea ez denez pekatua, mahats batzuk nire ikuskizunerako hartzea erabaki dut —erantzun akrobatak.

—Ene! Zein gaizkile zantarrak hartu ote ditu denon mahatsak? —galdetu zuen Xabik.

—Potoloa, zikina, ardo kiratsekoa... Zein ote da? —galdetu zuen Leirek.

Bat-batean Ekainek begiak ireki zituen mamu bat ikusi izan balu bezala.

—Ai ene... Ez da, bada, izango.... Uste dut badakidala nor den! Eskerrik asko, akrobata jauna! Berandu da eta etxera joan behar dugu. Agur! —esan zuen Ekainek.

Lagunak urrundu egin ziren, baina ez zuten ulertzen zergatik esan zioten agur hain pista onak ematen ari zen akrobatari.

—Aizu, Ekain, zergatik agurtu duzu hain azkar eta zergatik zaude hain beldurtuta? —galdetu zion Xabik Ekaini.

—Uste dut badakidala nor den gure gaizkilea, baina ezin dut sinetsi —erantzun zion Ekainek.

—Nor, Ekain? Poliziari deitu beharko diogu —esan zuen Leirek.

—Ez, poliziek ez lukete sinetsiko. Hau umeok konpondu behar dugu. Goazen trenera eta bidean kontatuko dizuet —esan zien Ekainek.

Horren ondoren, lagunak trenerantz abiatu ziren, baina bidean polizia auto bat ikusi zuten norbaiten atzetik. Gaizkileak poltsa handi bat zeraman eta trenean sartu zen. Hori ote zen beraien lapurra? Orduan, umeak ere gaizkileari segika hasi ziren bagoiz bagoi, eta azkenean trenaren amaierara heldu ziren. Aurpegira begiratu zioten eta sorpresa galanta hartu zuten. Ez zen espero zuten gaizkilea. Horrek ez zuen txapelik, eta gainera ez zirudien tripontzia, baina poltsa handi bat zeraman, eta susmagarria zirudien.

—Nik ezagutzen zaitut! Zu ez zara lapurra, Baltasar baizik! —esan zion Izarok.

—Kaixo, umeak! Barkatu ihes egin behar izana, baina gaur ez da kabalgata eguna eta ez genuke elkar ikusi behar, ezta? Gainera lapur baten atzetik nabil misio sekretu batean —esan zien Baltasarrek.

—Bilatzen duzun lapurra ez da izango gizon lodi eta ardo kiratsdun bat, ezta? Gu mahats lapur horren atzetik gabiltza! —esan zion Xabik.

—Nola dakizue bere berri? Gizon hori Euskadiko mahats guztiak lapurtzen ari da eta familia guztien Urtezaharra hondatuko du.

—Eee... Baltasar, nik susmo txar bat daukat lapurrari buruz, baina ez nago ziur —esan zuen Ekainek.

—Olentzero da, ziur nago —esan zuen Baltasarrek.

—Nik ere susmo hori dut. Baina nola dakizu zuk hori, Baltasar? —erantzun Ekainek.

—Bada, orain dela gutxi, Olentzero kamioi batean ikusi nuelako beste herri batean eta, kasu egin nionean, modu txarrean erantzun zidalako. Amorratuta zirudien aurtengo pandemiagatik eta Gabonetan umeek ezin izan zutelako berarekin egon eta gutuna eman. Begirada oso maltzurra ikusi nion —gaineratu zuen Baltasarrek.

—Eta zertarako behar ditu Olentzerok mahats horiek? —galdetu zuen Xabik.

—Ondoren berak banatzeko eta lapurrak Erregeak izan garela esateko. Orduan familiak gurekin haserretuko lirake eta urtarrilaren 6an ere berak banatuko lituzke opariak. Horrela jendeak bera gehiago maitatzea lortuko luke —erantzun zien Baltasarrek.

—Eta nola gelditu dezakegu? —galdetu zuen Leirek.

—Nire plana Olentzerori mahatsak kentzea eta ondoren Euskal Herriko dendetan banatzea da. Lagunduko didazue? —proposatu zien Baltasarrek.

—Ideia bikaina! —erantzun Xabik.

—Tira ba! Goazen elkarrekin! —erantzun Leirek.

Lau lagunak eta Baltasar gamelura igo eta Olentzeroren etxerantz abiatu ziren. Bertara iristerakoan, hantxe zegoen aparkatuta mahatsez betetako kamioia. Umeak beldurtuta zeuden arren, Baltasarrek lasai egoteko esan zien, Olentzero pixka bat petrala izan arren, bihotz oneko gizona delako. Baltasar ziur zegoen berarekin hitz eginda konponbide bat aurkituko zutela.

Xabik etxeko atea gogor jo zuen: PUM PUM PUM.

—Olentzero! Hor zaude? Zurekin hitz egin behar dugu lehenbailehen!

Orduan, etxeko leihotik itzal handi-handi bat altxatzen ikusi zuten, eta itzal hori aterantz zetoirela konturatu ziren.


—Nor dabil hor? Ez al dakizue pandemiarekin ezin duzuela hona etorri? Orain ez da inor etortzen nire etxera. Bakar-bakarrrik utzi naute, hainbeste urtetan opariak eta alaitasuna banatu ditudan arren... —esan zuen Olentzerok.

—Olentzero maitea. Bihotza triste duzu, baina ez zaude bakarrik, beti bizi izango zarela gure bihotzetan. Baina kezkatuta gatoz mahatsekin arazo larri bat dugulako. Ba al dakizu zerbait horri buruz? —galdetu zion Leirek.

—Ez dut beste erremediorik izan! Umeek ez banaute maite, Errege Magoak ere ez dute maitasunik izango! —erantzun Olentzero.

Baltasarrek irribarre egin zion Olentzerori eta honela esan zion:

—Lagun maitea. Sufritzen duzun bakarra zarela uste al duzu? Errege Magoak ere triste gaude umeak ez ikusteagatik, baina, mahatsak lapurtuta, familien tristura handitu besterik ez duzu egingo. Beraiek maite zaituzte, eta pandemia pasatzen



denean, zure etxea berriro ere umez beteta egongo da. Baina mahatsak lapurtu dituen zu izan zarela jakiten badute, orduan umeen maitasuna betirako galduko duzu.

—Ideia bat bururatu zait! Olentzero, zer iruditzen zaizu denok mahatsak banatzen baditugu eta lapurra aurkitu duena Olentzero izan dela esaten badiegu? Horrela, maitatuago sentituko zara eta familiek Urtezahar gau zoriontsua ospatuko dute —esan zuen Leirek.


—Bikain! Nola ez nuen lehenago pentsatu! Baina egin dudana eta gero, benetan lagunduko didazue? —galdetu zien Olentzerok.

—Noski, Olentzero. Zu gure heroia zara eta urte hau txarra izan da denontzat, baina elkarrekin maitasunez ondo amaitu dezakegu —erantzun zioten.

Horrela, Baltasarrek besarkada handi bat eman zion Olentzerori eta bakeak egin zituzten. Ondoren, taldean lan eginez eta kamioi handiaren eta gameluen laguntzarekin, Urtezaharra baino lehen lortu zuten mahatsak banatzea.

Garai txarrak elkarri lagunduz hobeto igarotzen dira, eta Urtezahar gaua mahatsekin hobeto ospatzen da.





C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)




BIHOTZ HANDIKO GIZON BELDURGARRIA

Urtzi Goikoetxea Peñas
La Salle Bilbao HLBHIP

Bazen behin Lekeition bizi zen familia bat. Familia horretan lau kide ziren, bi seme-alaba eta gurasoak. Alaba nagusiak Adaia zuen izena eta hamabi urte zituen; seme txikiak, Hodei, zortzi urte zituen. Aita Gorka zen eta ama Maitane.

Adaiaren eta Hodeiren filmik gustukuen “Transilvania Hotela” zen. Ostiralero eskatzen zieten gurasoei filma ikusteko. Hogeita hamar bat aldiz ikusi ondoren, Gorka eta Maitane nekatu egin ziren eta seme-alabei berriro ez ikusteko eskatu zieten; baina haiek ezetz esan zuten. Azkenean, akordio batera iritsi ziren: gurasoek Transilvaniara eramango zituzten, eta horren truke ez zuten berriro filma ikusiko. Asko pentsatu ondoren, baietz esan zuten, haien ametssetako bidaia zelako.



Martxoan zeuden, Aste Santua iristeko eta Transilvaniara joateko oso gogotsu. Egunak zenbatzen zituzten eta egunero galdetzen zieten gurasoei: “Zein egunetan aterako da hegazkina? Zenbat ordutara dago Errumania hegazkinez?”

Iritsi zen eguna eta guztiak prest zeuden. Adaiak bere txanoa eta jaka jantzita zituen, eta Hodeik ere bai. Loiuko aireportura heldu eta bi ordu itxaron zituzten hegazkina iritsi zen arte. Arratsaldeko bostetan ateratzen zen eta bost orduko bidaia luzea zen. Eta, oso bidaia merkea izan zenez, lehenengo mailan joatea erabaki zuten. Bertan besaulkiak oso erosoak ziren eta janaria emango zieten.

Errumanian lur hartu zuten, eta taxi batean alokatutako etxera heldu ziren. Etxea ez zen oso handia, baina oso eroso zirudien. Baina zoragarriena zera izan zen: Drakularen gazteluaren ondoan zegoen!



Drakularen gaztelura sartzeko sarrera batzuk ordaindu behar ziren, eta bertara iritsi zirenean, segituan abiatu ziren ikustera. Adaia aho zabalik geratu zen eta Hodei ia zorabiatu egin zen sentitu zuen emozioagatik. Sei ordu egin zituzten gaztelua ikusten; gazteluko bazter guztiak miatu zituzten. Handik ateratzean, Hodeik eta Adaiak hurrengo egunean berriro bueltatu nahi zutela esan zieten beren gurasoei. Ezin zirela egunero gazteluan sartu esan zien Gorkak; alde batetik, Transilvanian zortzi egun egingo zituztelako eta beste leku batzuk ikusi behar zituztelako, eta, bestetik, diru asko balio zuelako. Hodei oso triste itzuli zen etxera,

baina Adaiari esan zion gaztelura itzultzeko plan bat pentsatuko zutela. Egun osoan pentsatzen egon ondoren, azkenean, gauean gaztelura sartzea erabaki zuten.

Gurasoak lokartu zirenean, etxetik atera eta Drakularen gaztelura abiatu ziren. Sartzea ez zen oso zaila izan, gaueko guardia lo zegoelako. Jadanik barruan zeuden, eta biak oso beldurtuta. Gaztelu guztia miatu zuten, eta oso aspertuta zeudenez, azken solairura igotzea erabaki zuten, nahiz eta debekatuta egon. Atea itxita zegoen, baina Adaiak bere iletik urkila bat hartu eta behartu egin zuen. Oso leku iluna zen eta ez zen ezer ikusten. Bat-batean Hodeik estropezu egin zuen, eta lurrera begiratzean, giza hezurdura bat zela konturatu zen. Korrika egin zuen alde, Adaiari besotik helduta. Bazter batean distira bat ikusi zuten eta biak konorterik gabe geratu ziren.

Esnatu zirenean, ez ziren ezertaz gogoratzen, ez zekiten non zeuden, nortzuk ziren, ezta zer gertatu zitzaien ere. Begiak irekitzean, gizon arraro bat ikusi zuten, oso hagin luze eta zorrotzak zituen, eta kapa beltz luzea jantzita zeramana. Tunika beltz bat ere bazeraman. Ezer gogoratzen ez zutenez, ez zitzaien arraroa iruditut. Gizon horrek hatzak klaskatu zituen eta guztia gogoratzen hasi ziren. Orduan, korrika joan



ziren gazteluko aterantz, leku sorgindu horretatik ihes egiteko. Baina beltzez jantzita zegoen gizonak txalo egin ondoren, ate guztiak itxi ziren. Jarraian, gizona bere burua aurkezten hasi zen.

—Kaixo, lagunak, Drakula dut izena —esan zuen gizonak.

—Zu al zara Drakula, filmetako Drakula? —galdetu zion Adaiak beldurrez dardarka.

—Bai, ni naiz, baina ez naiz filmetan irudikatzen nauten bezalakoa. Nik ez dut odola edaten, barazkijalea naiz.

—Orduan, ez gaituzu jango? —galdetu zuen Hodeik ahots ahularekin.

—Noski, baina lehenago patata batzuk prestatuko ditut —esan zuen Drakulak barrezka.

Bi umeak gela hartan korrika hasi ziren, atea zabaltzen saiatzen ziren bitartean. Adaia leihotik behera jausi zen, eta Drakulak, azkar batean, saguzar bihurtu, dorretik hegan atera, eta Adaia airean harrapatu zuen.

—Txantxetan ari nintzen, lagunak —esan zien Drakulak irribarre handiarekin, bere hortz zuriak erakutsiz.

Drakulak bere istorioa kontatu zien. Pertsona normala zen, baina ikastetxean barre egiten zioten oso hortz handiak zituelako. Aita oso zientzialari famatua zen, Andrei Dumitru.

Hogeita lau urterekin emakume batekin ezkondu zen, Lucy Westenra izenekoa. Egun batean, Drakula gazteak aitari esperimentu bat egiteko eskatu zion, hortzak konpontzeko esperimentu bat. Esperimentua txarto atera zen, eta Drakula eta Lucy esperimentu gelan zeudenez, biak saguzar bihurtu ziren. Gainera, aita esperimentu horretan hil zen.

Guztiaren ondoren gainera, jendeak oraindik bere itxuraz barre egiten zuen. Orduan, jendeak berriro isekarik ez egiteko, antzerki bat egingo zuela erabaki zuen. Konseiluko plazan egin zuen, Transilvaniako plazarik garrantzitsuenean. Maniki bat hartu eta benetako pertsona bezala mozorrotu zuen. Saguzar bihurtu zen eta manikiari koska egin zion, arroparen azpian tomate poltsak jarrita. Hortik aurrera jende guztiak hartu zion beldurra. Jendea beldur zenez, etxea erre zieten, eta emaztea bertan hil zen.

Hain haserre zegoenez, gaztelu zahar batean giltzapetu zen. Gainera, bere aitaren esperimentuari esker, nahi zituen beste urte bizi ahal izango zen. Baina emaztea hil zenetik, oso bakarrik zegoen, eta ezkutaturik bizi zen.

Adaia eta Hodei, istorio hori entzun ondoren, oso triste jarri ziren eta pare bat egunez Drakularekin geratzea erabaki zuten. Azken solairuan gela sekretu asko zeuden eta Hodeik gela batean lo egin zuen; Adaiak bestean. Hodeik eta Adaiak argi utzi zien pare bat egunez baino ezin zirela bertan geratu, baina Drakulak bizitza osoa elkarrekin geratzea nahi zuen. Azkenean, jolas bat egingo zutela erabaki zuten: Hodeik eta Adaiak irabaziz gero, nahi zutenean joan ahalko ziren; baina Drakulak irabazten bazuen, bizitza osorako geratuko ziren hirurak gazteluan. Jolas hori bizitzako gauza garrantzitsuena bihurtu zen.

—Nik ezkutaketara jolastu nahi dut —esan zuen Drakulak.

—Ados nago —erantzun zion Adaiak.

—Ni ere bai —gehitu zuen Hodeik.

—Has gaitezen! Lehenengo txandan zuek bilatuko nauzue eta bigarrenen nik zuek —esan zuen Drakulak.

—Ondo iruditzen zait —esan zuten bi anaia-arrebek batera.

—Ez dago denbora mugarik eta ezin da gatzelutik atera. Ezkutatuta denbora gehien ematen duen pertsonak irabaziko du —azaldu zien Drakulak.

Adaia eta Hodei zenbatzen hasi ziren. Bukaezina iruditu zitzairen denbora baten ondoren, Drakula bilatzera atera ziren. Zazpi ordu egin zituzten haren bila, eta bidean armiarmak, labezomorroak, sagutxoak eta saguzar bat ere aurkitu zituzten. Bat-batean, Adaia leihotik jausi zenean, neska salbatzeko, Drakula saguzar bihurtu zela gogoratu zuen Hodeik. Orduan, saguzarra ikusi zuten lekura bueltatu ziren, baina han ez zegoen saguzar bat, ehun baizik. Adaiak Natur Zientzietako eskolak gogora ekarri zituen, irakasleak saguzarrei buruz azaldutakoak, hain zuzen. Hasiera batean, neskak irakasleak esandakoak ez ziola ezertarako balioko uste izan zuen; baina Hodeiri labezomorro bat hiltzeko eskatu, zomorroa hartu eta airera bota zuenean, saguzar guztiak labezomorroa harrapatzea joan ziren; denak bat izan ezik.


—Harrapatu zaitugu! —oihukatu zuten bi umeek batera.

—Harrapatu nauzue, baina orain nik bilatu beharko zaituztet —esan zuen Drakulak.

Hodei Transilvania hotelaren filma guztiak gogoratzen hasi zen. Bat-batean gogoratu zuen gauza bat Adaiari esateko gogoia zuen, baina ez zegoen denborarik. Hodei ezkutatu egin zen. Goizeko bostak eta laurdenak ziren eta Transilvanian bost eta erdietan da egunsentia. Drakulak ezin du eguzkia ikusi. Orduan, teilatuan ezkutatzeko bazen eta Drakula hamabost minutuz harrapatu gabe egon ahal bazen, lehiaketa irabaziko zuen.

—Laurogeita hamazortzi, laurogeita hemeretzi eta ehun. Ezkutatu ez denak denbora izan du —esan zuen Drakulak.

Bost minutuan Adaia harrapatu zuen ganbaran zegoen kutxa baten barruan. Hodei bakarrik geratzen zen. Hamar minutu eutsi behar zituen. Hamabost minutu



pasatuta ez bazuen Hodei harrapatzen, Drakulak jolasa galduko zuen. Drakulak bere super abiadurarekin dorre osoa begiratu ahal izan zuen denbora horretan. Dena den, ez zuen inor aurkitu. Eta justu amore emateko zegoenean, Hodeik teilatuan laprast egin zuen eta teila bat jausi zen. Drakulak zarata hori entzun zuen, eta teilatura abiatu zen ziztu bizian.

Hodei teilatuaren tximinia atzean ezkutatu zen. Hogeita hamar segundo bakarrik geratzen ziren eta neba-arrebak dorretik joan ahalko ziren. Orduan, Drakulak Hodeiren oinetakoa ikusi zuen eta bere atzetik abiatu zen. Une horretan Hodei izutu eta teilatutik erori zen.

Baina denbora pasatuta zegoenez, anaia-arrebek irabazi zuten.

—Lagundu, mesedez! —esan zuen Hodeik.

—Non zaude? —galdetu zuen Adaiak.

—Hemen, teilatutik zintzilik —oihu egin zuen Hodeik oso beldurtuta —Ezin dut gehiago!

Adaiak eskutik heldu zion, eta pisu handia zuenez, biak erori ziren teilatutik behera; baina Drakulak Adaiaren eskua hartu eta berriro eraman zituen gora.

—Eskerrik asko! —esan zuten anaia-arrebek.

—Eskerrik asko zuei nirekin egun hauek pasatzeagatik —esan zuen Drakulak.


—Urtero itzuliko gara Transilvaniara —esan zuen Adaiak.

—Orain agur esateko unea da —esan zuen Drakulak tristura handiarekin.

—Agur, Drakula, oso pozik gaude zu ezagutu izanaz —esan zuen Hodeik malkoen artean.

—Datorren urtean ikusiko dugu elkar, ezta? —esan zuen Adaiak.

Besarkada bat eman zioten elkarri eta Hodei eta Adaia Lekeitiora bueltatu ziren. Handik aurrera, urtero joan ziren Drakula bisitatzerara.




KOLOREDUN MARRAZOA

Noa Rodríguez Martínez
Deustuko Ikastola IPI

Ez dakit nire buruan, nire ordenagailuan edo itsasotik gertu dagoen herri urrun batean; baina badakit hau gertatu egin dela: zeru gorria, itsaso urdina, praka motzak eta belaunak odoletan.

Duela urte asko, nire anaia eta biok marrazo eder bat eraiki genuen. Makila batzuk, hosto lehorrak, aldizkariak, kartoiak, hondarra, lokatza eta pazientziaz betetako hamar edo hamabost poltsa hartu genituen, eta horrekin guztiarekin bizia eman genion bukatuta zegoela iruditu zitzaigunean. Behin amaituta, duela denbora pixka bat txakur batena izan zen lepokoa jarri genion, ihes egingo zuen beldur ginelako biok.

Handik denbora batera, anaia hil egin zen, eta nik, malkoen artean, gure marrazoak ez zuela lepoko hori eraman behar erabaki nuen, libre egon behar zuela uste izan nuen.



Garajejan begiratu eta herriko beste haurrekin korrika egiteko erabiltzen genuen karretila hura aurkitu nuen. Ondoren, marrazoa hartu, karretilan ahal bezain kontu handienarekin muntatu eta soka batzuekin finko-finko lotu nuen ez zedin erori. Ondoren, bultzaka, gertuen zegoen hondartzara eramane nuen, eta sokak kentzen nizkion bitartean, belarrira xuxurlatu nion: “Aske zara!”. Marmol koloreko malko bat ikusten niola iruditu zitzaidan.

Hurrengo egunean, bisitan joan nintzen, eta aita- seme batzuk ikusi nituen bertan. Mutikoa marrazoa makila batekin gogor jotzen ari zen, aita zoro baten moduan oihukatzen ari zitzaion bitartean: “Hil ezazu! Hil ezazu”.

Marrazo gizajoari, defentsarik gabe, begiak malkoz bete zitzaizkion, eta ez zuen inongo mugimendurik egiten, bere masailezur indartsuak irekitzeko, borroka egiteko, bizirik irauteko. Agian pentsatuko zuen ez zuela merezi mundu honetan bizitzea. Guraso asko daude seme-alabei oihu egiten dietenak “Hil ezazu!”, makila bat, pistola edo labana daramaten bitartean. Baita beren buruari gauza bera oihukatuko dioten ume asko ere. Marrazo gizajoa bertan geratu zen begiak zuloetatik irtenda eta hankaz gora.

Aita eta semea etorbidearen amaieratik irteteten ari ziren bitartean, aita irribarreka zihoan, bere betebeharra bete zuelako; eta semea harro egindakoaz. Oraindik izkina batean eserita nengoela, negarrez, euripean, blai eginda, nire marrazo gizajoari begira nengoela, zerua bitan zatitu zela pentsatu nuen, nire bizitzan ikusi nuen tximistarik handiena alboan jausi zitzaidalako.

Eta gaur, urte askoren ondoren, buruak bueltaka jarraitzen du zer naizen galdetzen, aita, semea edo marrazoa.

Urte batzuk gehiago pasatu ziren, ia ez nuen gogoratzen istorio ahaztezin hura, egun euritsu batean nire emazteak makurtuta aurkitu ninduenean, telebistaren aurrean negarrez, semea trajez begiratzen ari nintzela, presidente izendatzen zuten bitartean. Aita zaharrak eskuak dardaraz zituen, eta semea txalotzen zuen bastoia ondoan zuela.

Orduan jakin nuen nire marrazoa benetan hil egin zela eta ezingo nuela ametsetan berriro zaindu. Haren bila joan behar izango nuen geroko bizitzan, non makilarik ez zegoen, kanaberarik ere ez, ezta seme-alabarik edo gurasorik ere, milaka eta milaka marrazo besterik ez. Haien artean, urrunean, itsasertzean zegoen eliza zaharreko kanpaiak gutxinaka urrunago entzuten nituen, eta bitartean, gehiago molestaturiko ez zituen agure zoro bati buruz hitz egiten ari zen herriko jendea.

ISRAEL ETA PALESTINA. BI IPUIN MOTZ HISTORIAN ZEHAR

Jorge Martínez de Paz
Ignacio Ellacuría-Zurbaran BHI

1897: Hakim Saleh

Atzo familia berri bat heldu zen nire herrira: Akrab-era. Bai, Akraben bizi naiz. Herri oso handia da eta jende asko bizi da bertan.

Familia oso arraroa zen. Jaka beltzak zeramatzaten aita eta semeak; eta aita kapela beltz bat ere bazeraman. Semeak, berriz, txapel txiki bat zeraman, dena beltza. Beno, dena ez, alkandora zuria zeramaten. Amak soineko arrosa eta ilean zapi gris bat zeraman. Inoiz ez nuen ikusi holako familia arraroa. Aitari azaldu nion eta esan zidan juduak zirela. Inoiz entzuna nuen hitz hori, baina ez nekien zer ziren.

Aita musulmanak bezalakoak zirela azaldu zidan, baina beste jainko batean sinisten zutela. Beste jainko batean sinisten zutela! Hori sinestezina iruditu zitzaidan. Ala zen jainko bakarra eta ez zegoen beste jainkorik. Edo hori uste nuen une horretara arte; horregatik ikertzero joan nintzen liburutegira. Liburu batean judutarrei buruz irakurri nuen, eta ez zegoen informazio askorik. Horregatik, familia horren bila joan nintzen, esateko okertuta zeudela eta jainko bakarra existitzen zela.

Kaleetan bueltak eta bueltak eman nituen haien bila, baina ez ziren agertzen. Jendeari galdetu nionean, ez zituztela ezagutzen esan zidaten gehienek. Azkenean, pertsona batek tabernan ikusi zituztela esan zidan. Aitari diru pixka bat eskatu nion zuku bat erosteko, eta tabernara joan nintzen.



Bertan aurkitu nituen, eta ea nola deitzen ziren galdetu nien. Aitak Ori deitzen zela esan zidan, semea Abraham, eta emaztea Ana. Gero, nire izenagatik galdetu zidaten. Hakim nintzela esan nien.

Haien jainkoari buruz galdetu nien ondoren, eta harrituta geratu ziren. Ez zidaten ezer esan, eta semearekin hitz egiten hasi nintzen. Oso jatorra zen eta lagun egin ginen; hain lagun minak, ezen etxera joaten nintzaion bila kalera ateratzeko. Azkenean, egun batean, herriko alkateak herritik bota zituen juduak izateagatik, eta ez nuen berriro hari buruz ezer jakin. Ez nuen ulertzen zergatik bota zituen eta oso triste jarri nintzen.

1967: Ibrahim Awad

Kaixo! Ibrahim Awad naiz, eta 11 urterekin sei eguneko guda nola bizi izan nuen kontatuko dizuet. Jan Yunishen nengoen. Familia ikustera joana nintzen




gurasoekin. Ogia eroatera joateko dirua eman zidaten, eta okindegira abiatu nintzen. Okindegitik atera eta etxerako bidean danbada bat entzun nuen. Jendea korrika hasi zen. Nik ere berdina egin nuen eta korrika atera nintzen handik. Danbada gehiago entzun nituen, eta etxe baten barruan babestu nintzen bonbardaketa bukatu zen arte. Bukatutakoan, korrika joan nintzen etxera, eta denak ondo zeudela ikusi nuenean, asko poztu nintzen. Gero, janari asko hartu genuen eta sotoan ezkutatu ginen.

Bi egun iraun zuten bonbardaketek, eta azkenean soldadu israeldarrek Gaza hartu zuten. Ondo tratatuko gintuztela uste izan genuen, baina hori ez zen horrela izan. Bi soldaduk hartu ninduten eta jipoi galanta eman zidaten. Bakean utzi nindutenean, familiaren bila joan nintzen; baina nire familia hilda zegoela esan zidaten polizia-etxean. Orduan, zentro batean utzi ninduten. Horrek asko eragin ninduen eta oso txarto pasatu nuen. Israeldarrek ez ziguten ia janaririk ematen eta ura kutsatuta zegoen. Azkenean, Europara emigratu nuen. Bertan hobeto portatu ziren nirekin eta dena hobetu zen. Israelek nire lurra, nire etxea eta nire familia kendu dizkit.

URETAKO MARGOLARIA

Alba Benito Álvarez
Deustuko Ikastola IPI

Lisak hamar urte ditu, eta itsasoa eta margotzea asko gustatzen zaizkio. Urte guztietan joaten da aitarekin oporretan hondartzaren alboan dagoen hotel batera. Eta aurten Lisak lagun berezi bat egin du: Riss olagarroa!



Riss olagarroa oso bitxia da. Egun batean, Rissek, pertsona zahar bat ilunabarra margotzen ikusi zuen itsasertzean. Hurrengo egunean, pertsonak mihisea ahaztu zuen eta Rissek margotzea erabaki zuen. Zer margotu zuen? Bada, itsas hondoa! Koadroa amaitu eta uretara sartu zen.

Biharamunean uretatik margotzera atera zenean, koadroa ez zegoela ikusi zuen, baina lurrean txanpon batzuk zeuden. Olagarroak txanponak hartu zituen eta koadro berri bat margotzen hasi zen. Oraingoan koral gorri eta laranja margotu zituen. Gaua heldu zen, Rissek koadro berria itsasertzean utzi zuen eta uretara sartu zen hurrengo egunera arte.

Egunak argitu zuenean, uretatik irten zen berriro ere margotzeko, eta bere koadroa ez zegoela ikusi zuen, baina koloretako pilota bat zegoen bertan. Beste koadro bat amaitu, pilota hartu eta itsasora sartu zen hurrengo egunera arte.

Hirugarren egunean ere ez zegoen koadroa, berriro desagertu zen, baina beste opari bat zegoen bertan: eguzkitarako betaurreko batzuk. Rissek beste koadro bat margotu eta hurrengo egunean beste opari bat eduki zuen. Horrela beste lau egun gehiagotan.

Rissek kutxa bat zuen, bere opariak altxorak balira bezala gordetzeko. Koadro gehiago margotzen bazituen, opari gehiago edukiko zituela pentsatu zuen; eta olagarro bat zenez eta zortzi tentakulu zeuzkanez, egunean zortzi koadro margotu ahal zituela pentsatu zuen. Hori eginda, opari asko izango zituen.

Goiz horretan, Riss oso pozik zegoen opari asko imajinatzen zituelako, eta orduan lanean jarri zen. Zortzi koadro margotzen hasi zen bere zortzi tentakuluekin. Bazkaldu eta gero amaitu zuen margotzen. Horren ondorioz, oso nekatuta zegoen, baina oso pozik. Eta itsasoaren hondora joan zen lo egitera.

Hurrengo egunean, itsasertzera hurbildu zen bere opariak ikusteko, baina ez zegoela ezer ikusi zuen. Ezzzzz...! Zer gertatu da? Riss oso txarto sentitu zen bere koadroak desagertu zirelako. Orduan, oso triste uretara sartu eta ez zuen berriro margotu nahi izan. Rissen lagunak (Johnny txipiroia, Kali otarraina eta Bobby puxika arraina) oso kezkatuta zeuden. Orduan, Rissi laguntzea erabaki zuten, baina, nola?

Bada, hiru lagunek Riss animatzea erabaki zuten, harean mezuak idatzita.

Johnny txipiroiak zera idatzi zuen:

“RISS, LAGUN ETA MARGOLARIRIK ONENA ZARA”.

Kali otarrainak haxe idatzi zuen:

“GURE ALTXORRA ZARA ETA BIKAIN MARGOTZEN DUZU”.


Bobby puxika arrainak zera idatzi zuen:

“EZ UTZI MARGOTZEARI. ZURE KOADROAK IKUSTEA ASKO GUZTATZEN ZAIT”.

Riss hunkitu egin zen eta ur-munduko lagunak onenak zirela pentsatu zuen. Orduan, itsasotik atera zen berriro margotzeko. Itsasertzean neska bat ikusi zuen, triste eta aspertuta, mihise zuri batekin. Norbaiten zain zegoela zirudien. Neska hori Lisa zen eta egun askoan Rissen zain egon zen. Zergatik?

Bada, Lisak gustuko zituen Rissen koadroak, eta aitari eraman zizkion artelanen bilduma egiten zuelako. Lisak Rissentzako opariak uzten zituen, baina azken egunetan koadroak eraman eta opariak uztea ahaztu zitzaion. Aitak Rissen

marrazkiak erakutsi nahi zituen erakusketa-areto batean, eta horregatik Lisak eta Rissek kartel erraldoi bat margotzea erabaki zuten jendea erakartzeko.



Erakusketa arrakastatsua izan zen, eta Riss famatu bihurtu zen kanpoan zein uretan. Gauzarik onena lagun minak bihurtu zirela izan zen. Lagunek beti animatu eta lagundu zioten, eta lagun berriak, Lisak, bere talentu handia ikusi zuen.

Rissen altxorrik onena, beraz, lagunak edukitzea izan zen.

NIRE ISTORIA

Laiatz Egiguren Santamaría
Ignacio Ellacuría-Zurbaran BHI

Aupa! Kaixo! Psikologoak gertatu zaidanari buruz idazteko esan dit. Kosta egiten zait, baina azkenean liburuxka honetan idatziko dut zer gertatu zaidan, edo psikologoak esaten duen moduan, gertatutakoak zer trauma eragin didan.

Egia esanda, txatxukeria bat iruditzen zait. Ez dakit zergatik esan dudan baietz. Bueno, egia esan, bai; egun osoa gauza berarekin dabilatzalako psikologoa eta gehien bat ama. Eta nik gertatutakoa atzean utzi besterik ez dut nahi.

Ez dakit nola hasi. Gertakariaren aurreko egunetik hasiko naiz, bada. 2012ko otsailaren 7an, goizean, beti bezala gosaldutako egun nuen eta eskolara joan nintzen. Bertan, lagunekin elkartzeko nintzen eta klasea joan ginen. 4. orduan, atsedena ostean, matematikako klasea geneukan, baina ordezkotako berezi samar bat etorri zen; eta maisuak bizikleta-istripu bat eduki zuela esan zigun. Arraroa iruditzen zitzaidan, txirrindularitzan oso ona zelako eta inoiz ez zitzaiolako ezer gertatu. Ez nion garrantzirik eman. Orain damutu egiten naiz.

Klase arrunta eman genuen, eta ostean, tutoretza-saioa geneukan. Tutoretzan inauteriei buruz hitz egin genuen, hurrengo egunean zirelako: nola mozorrotuko ginen, etxetik etorriko ginen mozorrotuta ala klasean aldatuko ginen... Klasean hala adostuta, etxean jantzita etorriko ginela erabaki genuen. Bazkalordua heldu zen eta

korridorean nengoela, ordezkoa irakasle gelan aurkitu nuen gauza arraroak egiten: nire fitxa begiratzeko. Gose handia nuenez, beste behin, ez nion garrantzirik eman. Jantokira joan nintzen lasterka lekua hartzera.

Bazkalostean, klasera bueltatu eta gelditzen zitzaizkidan saioak bukatu nituen. Etxerantz abiatu nintzen eta bidean norbait nire atzetik zetorrela sumatu nuen. Baten baino gehiagotan begiratu nuen alboetara, baina ez nuen inor ikusi. Etxera heldu, etxeko lanak egin, neba txikiarekin jolastu eta di-da batean afalordua heldu zen. Dutxatu eta ohera joan nintzen.

Ohean pentsakor gelditu nintzen, baina lokartu egin nintzen. Hurrengo eguna heldu zen. 2012ko otsailaren 8an gosalduta, mozarrotu, besarkadak eta musuak eman eta klasera joan nintzen. Klasera heldu eta barre itzelak egin nituen mozarroak zirela eta. Festarako ordua heldu zen eta ordezeko irakasleak deitu egin zidan gauza batzuk hartzen laguntzeko. Baietz esan nion. Kanpora eraman ninduen furgoneta baten ondora, eta festarako pastel bat eskatu zituela esan zidan. Laster ekarriko zituztela, eta itxaroteko esan zidan. Bat-batean furgonetaren atea zabalduta, gozotegikoak zirela esan eta hurbiltzeko esan zidan. Hurbildutakoan, furgoneta barrura bultzatu ninduen. Barruan zegoen beste mutil batek lotu eta begietan benda bat jarri zidan. Ahoa zabaltzera behartu eta zerbaitekin ziztatu ninduten. Lokartu egin nintzen. Fabrika ziztrin abandonatu batean esnatu nintzen, aulki bati lotuta. Begietako benda kendu eta gutxira konturatu ziren esnatu egin nintzela. Ordezko-irakaslea niregana hurbildu zen.

—Ordua da! —ez nekien zer esan nahi zuen eta galdetu egin nion, baina ez zidan kasurik egin eta beste gela batera joan zen. Gauza batzuk ondo kokatu zituen ohe baten ondoan zegoen mahai batean. Ez nekien zer gertatuko zen eta beldur nintzen nire bizitzagatik.


Beste bi mutil nire ondora hurbildu ziren, aulkitik askatu eta ordezkoa zegoen gelara eraman ninduten. Berririo ohean etzan, lotu eta zerbait ziztatu zidaten. Mugikor bat hartu eta nire aitari deitu zioten eta haxe da gogoratzen dudana elkarriketa:

—Zure alaba berreskuratu nahi baldin baduzu, zuen familiako iparrorratza eta 500.000 euro ekarri behar dituzu, Jose Miguel eskolaren atzeko obretara, bihar. Ez baldin bazara agertzen, zure alabak pairatuko ditu ondorioak, eta asko haserretzen banauzu, zerbaitekin txarragoa gertatuko da.

—Baina ezin dizut eman nire familiaren iparrorratza —esan zuen aitak.

—Ziur zaude? Hobeto, zure alabari galde diezazu! AAAHH! Ez? Ezin duzu? Nik daukadalako! Ondo pentsatu, ondorioak egongo dira eta! Zuk jakingo duzu.

—Konforme! Emango dizut, baina nire sorginari ezin diozu ezer egin. Bere argazki bat nahi dut ordura, ondo dagoela jakiteko (Aitak beti esaten zuen bere sorgina nintzela).



—Ados, baina hobe duzu etorri, bestela badakizu! —mugikorra zintzilikatu eta argazki bat atera zidan. Eguna pasatu zen eta ez zidaten ia janaririk eman, pure marroi oso-oso txarra eta ur edalontzi bat bakarrik. Pura ia ezin zen jan, baina gose handia nuen.

Ordezkoak beste mutil batekin hitz egin zuen, baina ez zen ni kontrolatzen ari. Bietako bat berria zen eta banaketari buruz hitz egiten entzun nituen. Ordezkoa hurbildu egin zitzaidan eta esan zidan:

—Hobe du zure aitak etortzea eta iparrorratza ekartzea. Bestela gauzak okertu egingo dira zuretzat.

Hori esan eta laster batean kotxera igo eta joan egin ziren. Nik bitartean ordezkoren laguntzaileei galdetu nien ea zergaitik zen hain garrantzitsua nire familiaren iparrorratza. Gehiegi galdetu nuen eta ahoan esparadrapoa jarri zidaten isiltzeko.

Zoritxarrez, ordezkoa haserretuta heldu zen. Aita hil nahi nuela sentitzen nuen, eta oso-oso beldurtuta nengoen. Nire aurrean jarri eta esan zidan.

—Aukera txarra. Hau ez da ondo bukatuko zuretzat eta hori zure aitari eskertuko diozu. Oso haserre, ileetatik hartu eta arrastaka eraman ninduen ohera. Aulkia kolpe batez apurtu, ohera igo, ondo lotu eta oihukatzen hasi zen.

—ZERGAIK? EZIN ZIDAN EMAN? BERE ALABA EZ DA HAIN GARRANTZITSUA?

Horren ostean mugikorra hartu eta oihuka hasi zen nire aitari esanez:

—ZERGAIK IZAN ZARA HAIN ERGELA? ORAIN IKUSIKO DUZU ZER DEN ONA! ZURE ALABA GORPUTZEKO ATALAK GALTZEN HASIKO DA! NIK NAHI DUDANA EMAN ARTE! ZURE ATEAN AURKITUKO DITUZU!

—Ez, ez, mesedez, ez. Ez ukitu nire alaba. Nahi baduzu, har nazazu ni beraren ordezkari —esan zuen nire aitak.

—Niri horrek ez dit ezertarako balio.

—Mosedez, ez egin ezer ere —jarraitu zuen aitak.

—Zer uste duzu zuk agintzen duzula ala zer?

—Ez, ez da hori... —esan zuen aitak guztiz etsita.

—Zuk itxaron eta ikusiko duzu.

Deia moztu, nire aurpegia ondo lotu eta nire belarria ebakitzeari ekin zion. Hortik gutxira lortu zuen. Kutxa batean sartu eta nire aitari bidali zion. Hurrengo egunean aitak belarria jaso eta ordezkariari deitu zion iparrorratza emango ziola esanez. Bi ordutara ordezkoa pozik heldu zen, eskuetan iparrorratza zeramalako. Nik ez nuen oso ondo entzuten. Askatuko ninduela esan zidan eta belarria moztu izana parkatzeko. Begiak estali, furgoneta barruan sartu eta ezagutzen ez nuen leku batean bota ninduten, lotuta eta ezer egin gabe.

Pausoak entzun nituen, eta begietako benda kendu zidan gizon ez oso zahar batek. Eskuan nituen sokak kentzeari ekin zion eta bitartean non nengoen asmatzen saiatu nintzen, baina ez nuen lekua ezagutzen. Orduan, gizonari galdetu nion eta esan zidan beste herri batean nengoela. Halere, esan zidan lagunduko zidala. Haren etxera eraman ninduen, buruan benda bat jarri eta zer gertatu zitzaidan galdetu zidan. Dena azaldu nion eta etxera eraman ahal ninduen galdetu nion. Baietz esan

zidan. Kotxea hartu eta etxeraino eraman ninduen.

Etxera heldu nintzenean egin nuen lenengo gauza nire neba txikia besarkatzea izan zen, eta gero ama. Ama erdi negarrez zegoen, eta aita komisaldegitik heldu berri, lurrera bota eta negarrez hasi zen. Ni, ordea, oso haserre nengoen berarekin. Belarri bat galdu nuen beraren erruagatik. Aita altxatu eta besarkada bat ematera etorri zenean, atzea eman eta esan nion:

—BELARRIARENA ZURE ERRUA DA! IPARRORRATZ ZIZTRIN
BAT NI BAINO GARRANTZITSUAGOA AL DA?


—Sorgintxo, ez dakizu zer garrantzitsua den iparrorratz hori gure familiarentzat.

—Ba ez, ez dakit, baina hiltzeko zorian egon naiz kaka zahar horregatik! Berdin zait nolako garrantzia daukan gure familiarentzat, baina zukan nuen konfiantza galdu egin dut. Ni aukeratu ordez, iparrorratza aukeratu duzu.

Hori esan eta gero, korrika igo nintzen nire gelara eta ama eta neba etorri ziren atzetik. Aitak egindakoa jakin gabe, ama logelara sartu zen eta galdezka hasi zitzaidan: ea zelan nengoen, zer egin zidaten eta zer egin zuen aitak... Dena ondo azaldu nion eta horren ostean amak ospitalera eta komisaldegia eraman ninduen. Aitarekin ere hitz egin zuen dutxatzen nintzen bitartean. Dutxatu, pijama jarri eta nebaren logelara sartu nintzen. Gurasoak oraindik eztabaidan zebiltzan, eta ahotsa gero eta gehiago igotzen ari ziren. Nire nebatxoa gero eta urduriago jartzen ari zen, eta zer gertatzen zen ikustera jaitsi zen. Haserre aita eta minduta ama. Orduan, eskailerak jaitsi eta eztabaida gelditu nuen. Amari bere logelara joateko esan nion pixka bat lasaitzera eta aitarekin gelditu nintzen. Harekin hitz egin behar nuen, galdetzeko ea zergaitik aukeratu zuen iparrorratza.

Iparrorratz horrek familian 42 belaunaldi daramatzala azaldu zidan. Nire birramama gailu hori familian mantentzearen hil egin zela ere esan zidan, eta aita lekuko izan zela. Eta egoera horretan, zin egin zion ez zuela inoiz galduko. Orduan ulertu nuen zergatik egin zuen. Oraindik oso txarto iruditzen zitzaidan arren, ez dut inoiz ikusi inor nire begien aurrean hiltzen eta imajinatu ere ezin dut egin. Orduan, amari azaldu nion, baina oraindik sutan zegoen, berarentzat seme-alabek baitaukagu lehentasuna.

Denbora pasatu da, eta gaur egun ez daukat hainbeste amesgaizto, baina gurasoek arazoekin jarraitzen dute. Azkenean dibortziatu egingo dira. Neba triste badago ere, ni guztiz ados nago amarekin. Horrek ez du esan nahi aita maite ez dudarik, baina erabaki zuena ezin dut ahaztu. Ulerkorra izan nintzen, baina ezin dut ahaztu. Gainera, falta dudak belarriak gertatutakoa gogorarazten dit egunero, eta horregatik amak psikologoarenera eraman nau. Eta hemen nauzue gertatutakoa idazten.



D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



ZER DA MAITASUNA?

Tania Serbanescu Podac
Artxandape Ikastola HLBHIP

Teden kafetegia oharkabeen pasatzen zen gizartearen begi bizkorren aurrean. Sarrera apaintzen zuen kartel zaharra baloratu eta sartzeko pausoa ematea erabakitzen zutenek bakarrik aurkitzen zuten leku magiko hori. Baina, Teden kafetegiko gauzarik bitxienak ez ziren bertan saltzen ziren edari goxoak, ezta sartzean xurgatzen zen bakea ere, ez. Kafetegia ez zen luzaroan leku berean egoten, horixe zen bitxiena. Kafetegia lekuz aldatzeko motibo bat zegoen: Tedek, jabeak, unibertsoa misterioetako baten erantzuna aurkitu behar zuen: zer da maitasuna?

2004ko martxoaren 21a, Frantzia

Arratsalde bat pasatu zuen Parisetik urrun zegoen txoko batean, eta bat-bateko maitemina ikusi zuen. Emakume bat bere edariaren zain zegoen, kafetegiko apaingarriei begira. Era berean, gizon bat ere bere edariaren zain zegoen, eta entzungailuen bidez abesti bat entzuten eta baxu abesten ari zen. Ted, kafeak banatzerakoan, erratu egin zen, edariak alderantziz eman zituen. Eta une horretan, elkarri begiratu zioten biek, eta Tedek bien arteko maitemina ikusi zuen, lehen begiradako maitasuna. Biak kafetegitik atera ziren alai, hizketan ari zirela.

—Hori da maitasuna, bat-bateko maitemina —pentsatu zuen Tedek arratsalde horretan.

2013ko urtarilaren 12a, Norvegia

Norwegian pasa zuen asteburuan bi lagun barrezka sartu ziren, biak elurrez beterik. Haien begiradek argi erakusten zuten erabat maiteminduta zeudela. Baina ez bata, ez bestea ez ziren elkarri maitasun hori aitortzera ausartzen, familiak eta lagunak esango zutenaren beldur.

—Maitasuna aitortzeak beldurra ematen du, ekar ditzakeen ondorioengatik
—pentsatu zuen Tedek une hartan.

2001eko urriaren 17a, Errumania

Egun horretan, zortzi urteko bilobarekin batera sartu zen amona batek arretea deitu zion. Arratsalde osoa eman zuten kafetegiko mahaietako batean eserita, marrazten, hizketan, barreka... Umeak begietan distira berezia zuen. Ia arratsaldeko seiak zirela, amona zutitu eta bizkotxo txiki bat eta txokolate bero bat eskatu zizkion Tedi. Agindua mahaira eraman zuenean, amonak bederatzi zenbakidun kandela txikia piztu zuen, eta zain geratu zen bilobak desioa pentsatu eta kandelak itzaltzeko putz egin zuen arte.

Arratsalde hartan Tedek zera ikasi zuen: haur batek bere amona hilezkorra izatea desiratzea ere izan zitekeela maitasuna.

2009ko irailaren 15a, Erresuma Batua

Ted harrituta geratu zen egun hartan kafetegian sartu ziren ikasle guztiekin; errealitateak eragiten zien presiotik ihes egiteko leku lasai baten bila zetozen. Mahai batean lagun-talde txiki bat zegoen barrezka. Beste batean bikote batzuk irakurtzen. Atzealdean, jende asko zegoen entzungailuetan musika entzuten, ikasten edo etxeko lanak egiten zeuden bitartean. Teden kafetegiak leku ona zirudien kezka lasaitzeko.

Tedek ulertu zuen maitasuna soinueta isla zitekeela, lagunak barre-algaretan, entzuten zuten musikan, haien ahotsetan, haien liburueta orrien zaratan...

2006ko abuztuaren 29a, Danimarka

Tedek primeran gogoratzen zituen Danimarkan igaro zituen egunak, inoiz ahaztuko ez zuen irakaspen bat ikasi zuen, bikote bati esker. Bikotea mahai batean eseri zen eta neska hizketan hasi zen etengabe, mutilak, aurrez aurre, txundituta entzuten zion bitartean.

—Nahi al duzu hau? Gurinezko galletak gorroto ditut —esan zion mutilak, kafearekin batera zetorren pakete txikia ematen zion bitartean.

Egun horretan, Tedek teoria hau ikasi zuen: harreman batean, bati besteak gorroto duen zerbait gustatzen bazaio, bikote perfektua bihurtzen da. Ekuazio horretan bata da ematen duena eta bestea jasotzen duena, oreka perfektua eta elkarrekiko zorientasuna sortzen duena. Hala ere, hurrengo egunean, mutila bakarrik etorri zenean kafe baten bila, gurinezko galletak gustatzen zitzaizkiola konturatu zen Ted, baina prest zegoen gustatzen zitzaion zerbait sakrifikatzeko, bazekielako bere neska-lagunari gurinezko galletak zenbat gustatzen zitzaizkion.

Maitasunean batzuetan maite duten pertsonak zorientsu ikusteko sakrifizioak egiten direla ikasi zuen Tedek.

1998ko maiatzaren 7a, Italia

Udaberriko aste hartan gizon bat egunero ordu berean iristen zen kafetegira, mahai berean esertzen zen, aulki berean, eta beti kafe berdina eskatzen zuen. Gizona eseri eta beti egunkaria irakurtzen zuen, udaberriko arratsalde bateko argi beroa jaso eta kafea edaten zuen bitartean.

Maitasuna leku bat ere izan zitekeela konturatu zen Ted, eta bere kafetegia askoren maitasuna zela pentsatu zuen.

2023ko abenduaren 18a, Alemania

Egun hartan kafetegia hutsik zegoen. Tedek, mahaietako batean eseri, eta ikasitakoari buruz pentsatu zuen. Ordura arte, gauza asko ikasi zituen maitasunari buruz. Maitasunak, azken finean, esanahi ezberdina izan dezakeelako bakoitzarentzat. Eta Teden kafetegiak munduan zehar mugitzen jarraituko du esanahi guztiak aurkitu arte; batez ere, maitasunak berarentzat zer esan nahi duen aurkitu arte.



AMETSETAKO IKASBIDAIA

Uxue Larruzea Lopez
San Adrian BHI

2023ko apirilaren 23a

Gure garaia iritsi zen, gure bizitzako esperientziarik onenetako bat izango zena bizitzeko unea: ikasketa bidaia. Asko kostatu zitzaigun lekua erabakitzea, guztia antolatzea eta dirua lortzea. Bonboiak, tortilla, galletak, txartelak... denetarik saldu genuen, baina azkenean merezi izan du. Gaur Bartzelonara joango gara, hilabete batzuk barru berriz ikusiko ez dudan jendearekin astebete pasatzera. Neurri batean agurra bezalakoa da.

17:30. Maleta guztiak kargatuta, autobusez abiatu ginen helmugara. Pixka bat itogarria zen gelakide guztiek hain leku txikian bidaiatzea, baina hobe nuen lasaitu, bidaia luzea nuen aurretik eta. Eskerrak Unairekin eseri nintzela, nire lagunik onena. Horrela behintzat gure gauzez hitz egin ahalko genuen eta bioi gustatzen zitzaigun telesailen bat ikusi.

23:45. Berandu zen, baina azkenean iritsi ginen. Unai eta biok partekatzen genuen hoteleko gelara joan ginen, eta motxilan ekarri genituen ogitartekoak jan genituen. Eta gero ohera joan ginen, hurrengo eguna luzea izango zen eta.

2023ko apirilaren 24a

9:30. Goiz ez bazen ere, nahikoa kostatu zitzaigun altxatzea. Atzo berandu

iritsi ginen eta esnatuta geratu ginen pixka batean. Nekatuta geunden, baina beste lagunekin gosaltzera jaitsi ginen.

11:05. Egun horretan Bartzelona bisitatuko genuen. Hotela erdigunetik nahiko gertu zegoenez, oinez joan ginen. Bide nagusitik hasita, gainerakoak ikusi genituen, Familia Sakratura iritsi ginen arte. Bertan denbora libre pixka bat izan genuen, ingurua ikusteko eta atsedean hartzeko.

12:38. Familia Sakratuaren aldamioetako bat erori zen. Irakasleak gure bila hasi ziren, denok ondo geundela egiaztatzeko; baina anbulantziak entzuten hasi ginen, eta hurbildu ginenean, gure ikaskideetako bat ikusi genuen lurrean botata, Raul Rodriguez. Inork ezin zuen sinetsi gure laguna zela hondakinen artetik ateratzen ari zirena, eta geratu zitzaigun gorpuzkera txarrarekin hotelera itzultzea erabaki genuen.

16:40. Igerilekuan egon ginen pixka bat lasaitu nahian. Jan ere ez genuen egin, ez genuen gogorik. Bidaia bertan behera utzi edo ez pentsatzen aritu ginen, baina ondorioztatu genuen etxera joanda buruari buelta gehiago emango genizkiola.

20:00. Arratsalde osoa igerilekuan eman ondoren, paseatzera irten ginen, eta hotelera itzuli aurretik, hamburgesa bat afaldu genuen erdigunetik gertu dagoen jatetxe batean.

2023ko apirilaren 25a

9:30. Aurreko eguneko ordu bera. Asko kostatu zitzaigun jaikitzea, bai. Nik behintzat gaizki egin nuen lo, gau osoa eman nuelako aurreko egunean gertatutakoaz pentsatzen. Gosaltzera jaitsi ginen; eta ondoren, Port Aventurara joan ginen eguna pasatzera. Ondo etorriko zitzaigun.

13:35. Jateko aprobetxatu genuen. Ondoren, hainbat atrakziotan ibili ginen; baina atrakzio handietara joan nahi genuen, gainerakoak jaten ari ziren bitartean, eta horrela denbora gutxiago egoteko ilaran.

17:20. Beste mendi errusiar pare batera igo ginen, Shambalara, besteak beste. Gero, Dragoi Khaneko ilaran egon ginen zain. Denbora nahikotxo egin genuen itxaroten, baina gutxi falta zitzaigun igotzeko.

17:22. Begien itxi-ireki batean, Nicolas Gonzalez gure ikaskideak estropezu egin eta bidearen gainera erori zen, bagoia igaro baino lehen. Une hori, irudi hori, inoiz ikusiko dudana traumatikoena izan daiteke. Anbulantzia bat etorri eta eraman egin zuen.

18:00. Talde guztia elkartu ondoren, hotelera itzultzeko autobusa hartu genuen. Nire bizitzako bidaiarik garrantziena izan zen. Isilik geunden, baina denok pentsatu genuen gauza bera: oso inpresio txarra genuen, kasualitate handiegia zen, bi pertsona bi egunetan. Inork ez zuen bidaiatzen jarraitu nahi.

22:15. Iritsi ginenetik ez ginen gelatik mugitu. Unai makinara jaitsi zen sandwich batzuen bila, urdaila hutsik ez edukitzeko. Eta berehala geratu ginen lo, oso nekatuta geundelako.

2023ko apirilaren 26a

9:30. Beste egun batez, ordu gaizto horretan jaiki behar izan genuen, nazka izugarria hartzen ari nintzaion. Baina gosaltzera jaitsi ginen. Egun osoa genuen guk

nahi genuena egiteko, egun librea genuen. Hasieran, nire lagunak onenak eta biok egun osoa gelan geratzea pentsatu genuen, baina hobe genuela aire pixka bat hartzea iruditu zitzaigun. Gainera, bazkaldu ondoren, igerilekura joateko geratu ginen gainerakoekin.

12:50. Denbora luzea behar izan genuen janzteko eta hoteletik irteteko, baina azkenean kanpora joan ginen. Buelta ederra egin genuen bazkaldu nahi genuen jatetxea aurkitu genuen arte. Pizzeria italiar bat zen. Unairentzat eta biontzat ez dago pizza baino janari gozoagorik.

16:45. Jan ondoren, hotelera bueltatu ginen; esku-oihalen eta bainujantzien bila igo eta igerilekura jaitsi ginen. Iritsi ginenerako, denak zeuden han. Gauzak utzi, eta zuzenean uretara sartu ginen. Denbora luzea egin genuen hizketan eta ondo pasatzen.

18:07. June Diazek igerilekutik irtetea irrist egin zuen, eta erortzean, buruan kolpe handia hartu eta odoletan hasi zen. Berehala norbaitek larrialdi zerbitzuetara deitu, eta bila etorri ziren.


18:40. Gure gauzak biltzen ari ginen, ez genuen gehiago jasaten Bartzelona. Denok shock egoeran geunden, eta etxera joan nahi genuen. Argi geneukan hiru istripu horiek ez zirela kasualitate hutsa, norbaitek egon behar zuela atzean, baina edozer jakiteko gogoia kendu zitzaigun, oso nekatuta eta izututa geundelako.

19:45. Gelak utzi eta autobusera igotzeaz geunden, maleta pare bat besterik ez zitzaigun geratzen. Bat-batean sirena-hotsak entzuten hasi ginen, denok otoitz egin genuen beste anbulantzia bat izan ez zedin, baina polizia-auto batzuk zirela ikusi genuen eta gure aurrean gelditu ziren. Autoetatik jaitsi ziren, eta haietako batek esan zuen: *“Adrián Uriarte (bai, ni naiz), Raúl Rodríguez, Nicolás Gonzalez eta June Díazen hilketengatik atxilotuta geratzen zara, isilik egoteko eskubidea duzu, eta esaten duzun guztia zure aurka erabil daiteke.”*

Irakurle maitea, badakit oraintxe ez duzula ezer ulertzen, baina utz iezadazu esaten poliziak ez daudela oker. Entzun al didazu esaten zein polita den Familia Sakratua? Ez, benetan ez nengoelako arreta jartzen. Edo uste duzu norbait bakarrik eroriko dela mendi errusiarreko errailtara? Ez, nik eman nion bultzada. Eta benetan uste duzu norbait horrela irristatuko dela igerileku batean? Ez, nik botatako xaboiagatik ez balitz, ez zen ezer gertatuko.

Badakit denbora asko emango dudala giltzapean, baina sinetsi iezadazu merezi izan duela. Azkenean, Lehen Hezkuntzan bizitza ezinezkoa egiten zidaten koldar horiek guztiek merezitakoa jaso dute.

Beraz, zu, bai, zu, irakurtzen ari zarena! Dena ez dela dirudiena ikasi beharko zenuke. Eta, batez ere, ezin duzula sinetsi kontatzen dizuten guztia. Nigan konfiantza itsua izan baduzu erabat ezezaguna naizela kontuan hartuta, zer egingo duzu ezagutzen duzula uste duzun pertsona batek gezurra esaten dizunean?



COLLAGEAREN ATZEKO ISTORIA

Leire Ramil de Lucas
San Adrian BHI

Pandemiak irakatsi zidan egunak 24 ordu dauzkala, eta, etxean itxita, guztiz aspergarriak izan daitezkeela.

Lehenengo egunetan, egiteko ezer topatzen ez nuenean, errutina aldatu zen. Hortaz, bizitza modu motelagoan bizi behar nuela ikasi nuen. Baina denbora motela gero eta astunago bihurtzen ari zitzaidan, eta gogaitzen hasi nintzen, andereñoak email bat bidali zidan arte. Mezu horretan, Gernikan gertatutako bonbardaketari buruzko collage bat egin behar genuela esan zigun.

Hamaika urte bete berri nituen hilabete lehenago. Baina zer gertatzen zitzaion munduari, jendea bonbarik gabe hiltzen ari zenean honelako lan bat bidali behar izateko, bonben eta hilketen inguruan?

Etxean naturari buruzko aldizkari bat eta egunkari bat baino ez ziren geratzen. Nire amak garbiketa handia egin zuen, ni neu botatzea bakarrik falta zitzaion. Orduan haxe esan zidan:

—Edozein egunetan kontainer batean utziko zaitut! Aski da egun osoan aspertuta eta kexaka ibiltzeaz!

Geroxeago nire amari laguntza eske joan nintzaion:

—Ama!

—Zer nahi duzu?

—Gernikako bonbardaketari buruzko lan bat egin behar dut, collage bat.

—Collage bat? Ba, geneuzkan aldizkari eta egunkariak bota egin ditut!

—Ez! Naturaren arloko aldizkari bat topatu dut.

—Orduan gai honetaz dokumentatzea soilik geratzen zaizu.

—Dokumentatzea? Zer da hori?

—Dokumentatzea gai bati buruz informatzea da. Badakit collageak baduela eskulan zati bat; hau da, artearen bitartez espresatzea eskatzen dizute: historiaren parte izan den herrian bizi izandako min hori islatzea; eta horren ostean gertatutakoak zer ekarri zuen adieraztea: hildako pertsonak, galdutako gauzak...

—Pertsonak eta gauza materialak?

—Bai, galtzen dituzun pertsonak, zeren eta, bonbek eta metrailek pertsonak zauritu edo hil egiten dituzte. Eta herrian apurtzen diren eraikinak, erretako argazkiak eta horiekin batera maite izan dituzun pertsonen oroitzapen politak...

—Ezin dut imajinatu kontatzen ari zarena! Gero Interneten informazioa bilatzera joango naiz.

—Leire, Interneten informazioa, hitzak, historiako gizon-emakume garrantzitsuen izena-abizenak, datak... Hori badago. Baina Internetek ez dizu esango garrantzitsuena: pertsona horiek zer sentitu zuten, hau da, herriak nola sufritu zuen.

—Orduan, nola jakin dezaket hori? Gernikan ez dut inor ezagutzen.

—Pentsatu pandemian gaudela eta ezin gaitezkeela Gernikara joan informazio bila, ezin gara paseatu mina eta umildura jasan zuten kaleetatik. Baina badauzkagu mugikorra eta mapak Interneten.

—Eta nora deituko dut?

—Gauza ez da hori, baizik eta nori deitu.

—Ondo. Eta nori deituko diot?

—Udaletxeko biztanleen informazio gunera.

—Eta ez badidate hartzen?

—Beste aukera batzuk bilatuko ditugu, baina ez dadila izan Interneten informazioa bilatzea lehenengo gauza.

Nire amaren laguntzaz, pare bat telefono zenbaki lortu nituen eta deitu egin nien. Pertsonetako batek lagun nintzakeen pertsona baten zenbakia zuela esan zidan, eta ni interesatuta egonez gero, emango zidala.

Aste bakarra nuen collagea egiteko, hortaz, dei hori itxaron bitartean, nire amari ideia bat bururatu zitzaion. Armairutik nire baserritar jantzia atera zidan eta esan zidan:

—Esperientzia igaro bitartean, egunez traje hau bakarrik erabiliko duzu, izan ere, neskek, urte horietan, horixe erabiltzen zuten, eta arropa bakarra zuten egun guztietarako. Gainera, oso gutxi zuten igandeetan arropa aldatzeko aukera.

11 urte nituenaz, arropak eskuz garbitzeko adina nuela aipatu zidan. Beraz, bainuontzian arropa garbitzen jarri ninduen, ur hotzaz eta xaboiak. Eta esan zidan:

—Orain, arropa ibaian edo iturri handi batean garbitzen ari zarela imajina dezazun nahi dut. Eta ura ez dago bero!

Hori eginda dago, hobeto ulertu nuen zein gogorra izango zen garai hura. Bat-batean, alarmak jotzean, nire amak oihuka esan zidan:

—Korrika, etor zaitez, babeslekura joan behar dugu!

Momentu batean, guztiz zoratuta zegoela pentsatu nuen.

—Zein babesleku?

Eta egongelara eramán ninduen, zoruan jesarri ginen, hormaren kontra, bata bestearen alboan, eta esan zidan:

—Itxi begiak eta imajinatu, auzokide guztiak hemen sartuta daudela, gure auzokideak eta aurreko eraikinetan bizi direnak.

—Ez ginateke kabituko.

—Gehienetan hori gertatzen zen, eta kanpoan geratzen zen jendeak euren bizitza nola salbatu pentsatu behar izaten zuen.

—Eta zer egiten zuten leku hauetan (babeslekuetan) sartuta?

—Bonbak bukatu arte itxaron, otoitz egiten zuten bitartean; izan ere, urte horietan kristautasuna oso errotuta zegoen. Gero, pertsonak elkarri begiratzen zioten nor falta zen jakiteko, elkar besarkatzen zuten. Umeen aurrean negarrik ez egiten saiatzen ziren, egoera txarrago ez bihurtzeko.

Bi orduz egon ginen bertan ezer egin gabe, jada gose nintzen eta jan egin nahi nuen. Hara zelako sorpresa! Janaria ogi gogor apur bat eta baratxuri zaporea zuen zopa izan zen. Eta auzokideak emandako sagar erdia. Gu eskertuta, gainera.

—Baina, ama! Zer nolako afaria da hau?

Nire ama txoratzen ari zela uste nuen, eta nire aita ez zegoen hori ikusteko.

—Pozik egon beharko zenuke, batzuek ez zuten ezer afaltzeko, eta sagarra auzokideari esker; bestela ezta hori ere, eta fabore bat egin diodalako, gainera.

Gero, afaldu ostean telebista piztera nindoala...

—Ez horixe, etxeko teknologia guztia debekatuta dago. Garai horretan ez zen existitzen.

—Eta zer egingo dut?

—Platerak garbitu, eta bukatzean, josteari ekingo diozu.

—Josi? Ez dakit nola egiten den!

—Zeozer irakatsiko dizut.

Ez zegoen asko garbitzeko, baina hori bai, espartzurik gabe, eta kamiseta zati batez. Orduantxe esan zidan:

—Zuk horrekin garbitzen duzu, eta gero trapu hori, eskuilaz, ur apur batez eta xaboiak garbituko duzu.

—Baina... Ez duzu uste “pasatzen” ari zarela?

—Ez, neska zara. Eta neskek egiten zuten lana zen iraganean.

Ordu erdi batean bukatu nuen garbitzen.

Ez nuen josten ikasi, baizik eta atzamarrak zulatzen. Nekatuta nengoenez, merienda eskatu nuen.

—Merienda? Ea, Leire, gudan gaude, janaria mugatuta daukagu, bizitza zaila eta konplikatua da; ez dago askatasunik, eta aukeratzea ez da aukera bat. Itxaron egin beharko duzu ea afaltzeko zeozer dagoen.

Eta afaria heldu zen. Esne apur bat zegoen, urarekin nahastuta, ogi gogorra bertan bustitzeko.

—Ama, zenbat egunez edukiko nauzu honela?

—Alaba, gudak gutxi batzuek erabakitzen dutenean soilik bukatzen dira.

Gauean, pare bat kandela piztu eta bederatzieta ohean nengoen. Bi ordu geroago, amak esnatu egin ninduen, eta babeslekura joan behar genuela esan zidan. Nire ama, nire aita (Donostian zegoen lanean), egoera, nire irakaslea, guztia gorrotatzen hasi nintzen. Ez dakit zenbat denboraz egon ginen horrela, ni erdi lo nengoen, berriro ohera bueltatu ginen arte.

Hurrengo egunean ez nengoen horrela jarraitzeko moduan, eta nire amari esan nion:

—Ama! Ez dut atzokoa nahi. Ez! Informazioa bilatu nahi dut, lana egin eta kitto.

—Bikain, Leire, bila ezazu informazioa. Baina hori egindakoa, atzoko ikuspuntu gogorretik begiratu behar diozu informazio horri, haiekin enpatia izateko. Horrela soilik ulertuko duzu egun horretako krudelkeria zein izan zen ulertzea.

Gernikaren bonbardaketaren inguruan informazioa bilatu nuen: hainbat umek beste herrialde batzuetara emigratu zuten, familiagandik urrun, bizitza salbatzeko. Batzuk bueltatu egin ziren eta beste batzuk ez.

Geratu zirenek sufrimenduz bizi izan zituzten konbateak, suntsipena ikusi zuten, ideienatik familiakoak hiltzen zituztela.

Egun horren gainean Picassok koadro bat egin zuen, ulertzeko zaila; baina gutxika-gutxika begiratuta, hunkitu egin ninduen: besorik gabeko gorputzak, hankarik gabekoak, pertsonak minez oihukatzen, kandelak benetako ikara erakusten, ume bat amaren besoetan hilda.

Koadro hori Madrilén dago, baina beharbada hemen, Bilbon, egon beharko luke. Gernikako zuhaitzak biziraun zuela eta gaur egun Bizkaiaren eta Euskal Herriaren askatasunaren sinboloa dela ulertu nuen. Gero, momentu hartan umeak eta 2020an agureak zirenen esperientziak irakurri nituen. Horren guztiaren ondoren gehi bizitakoaren ostean, collagea egiten hasi nintzen, apurka, kontuz eta malkoren bat nire aurpegitik jaisten zen bitartean.

Aita Donostiatik bueltatu zenean, zer egiten ari nintzen galdetu zidan. Orduan nik erantzun nion urteko lanik hoberena egiten ari nintzela.

Collagea bukatu ostean esan zidan amak:

—Leire, zutaz oso harro nago. Ez duzu soilik historiaren parte den pertsonekin enpatia izan, hori islatzen eta helarazten ere jakin duzu.

Nire irakasleak galdetu zidan ea nik bakarrik egin nuen, eta nik baietz erantzun nion, baina ez nion istorio hau kontatu.

Geroago jakin genuen deituko nuen pertsona koronabirusak jota hil egin zela. Eta nahiz eta bere istorioa ez nuen entzun, pentsatu nahi dut collagean irudikatuta utzi nuela.

Nire familiari eskainia, eta 1937ko apirilaren 26ko biktima guztiei ere bai, umei batez ere.

JUSTIZIAREN LORATEGIA

Ivan Lobo de Miguel
San Adrian BHI


Bazen behin Harmonia izeneko herri txiki bat, non etxe koloretsuak kale harriztatuetan lerrokatzen ziren eta jendeak barreak eta adiskidetasuna partekatzen zituen. Hala ere, eguzkia zerumugan jarri ahala, desberdintasun itzal bat ageri zen Harmoniaren bihotzean.

Herriaren erdian, lore eta iturri artean, Justiziaren Lorategia zegoen. Leku magiko hau, Edurne izeneko emakume zahar jakintsu batek zaindua, kolore guztietako loreekin loratzen zen. Lore bakoitzak Harmoniako biztanleen ametsak eta itxaropenak irudikatzen zituen. Hala ere, zerbait ez zegoen ondo lorategian.

Egun batean, biztanleek ikusi zuten sarreratik hurbil zeuden loreak zimelak eta ilunak zirela, eta barrurago zeudenek, alderantziz, bizitasun handiz distiratzen zutela. Justiziaren Lorategiko desberdintasunaren berri berehala zabaldu zen herrian, eta kezka nagusitu zen guztien bihotzetan.

Herriko batzarra arazoari aurre egiteko bildu zen. Loreak birbanatzeaz hitz egin zuten, baina batzuek eutsi egin zioten, haien loreak baliotsuenak zirela esanez. Orduan, Amaia izeneko neskato bat, erabakitasunez beteriko begiekin, zutitu egin zen.

—Lore guztiak berdin zaindu beharko genituzke. Berdin dio koloreak edo formak, denek merezi dute bete-betean loratzeko aukera —esan zuen Amaiak



ausardiaz.

Neskatoaren hitzek bultzatuta, biztanleek elkarrekin lan egitea erabaki zuten, Justiziaren Lorategian harmonia berrezartzeko. Sistema bat sortu zuten, non familia bakoitzak lorategiko sektore bat zaintzeko konpromisoa hartzen zuen, lore guztiek behar zuten arreta eta maitasuna jasoko zutela ziurtatuz.

Denborarekin, lore zimelak berpiztu egin ziren, eta Justiziaren Lorategia gaua argitzen zuten kolore dardaratizko ikuskizun bihurtu zen. Batasuna eta justizia soziala Harmoniaren zutabe bihurtu ziren.

Harmoniaren historia beste herri batzuetara zabaldu zen, eta mundu osoan antzeko aldaketak inspiratzeko balio izan zuen. Amaia txikiak, bere kemenarekin, justizia soziala ideal bat baino gehiago zela erakutsi zuen; denek egin zezaketen ekintza bat zen.

Harmonia eraldatzearen berri zabaldu ahala, inguruko beste herri batzuk Justiziaren Lorategia bisitatzen hasi ziren, haren adibidez ikasteko. Leku horietako liderrak, harmonia eta ekitate distira ikusitakoan, beren komunitateetan antzeko aldaketak ezartzeko motibatuta sentitu ziren.

Egun batean, inguruko herrietako ordezkari talde bat Harmoniara iritsi zen, Justiziaren Lorategiko miraria gertutik ezagutzeko. Edurnek irribarre batez hartu zituen agure jakintsuak eta lorategiko zaindariak, eta bide loratuetatik barrena eramane zituen.

—Ikus ezazue lore bakoitzak gure ametsen eta itxaropenen aniztasuna irudikatzen duela. Baina ikus ezazue nola elkarrekin lan eginez lortu dugun loratzea —azaldu zuen Edurnek, lore distiratsu eta osasungarriak seinalatuz.

Bisitariak txundituta geratu ziren Harmoniaren historiarekin, eta euren komunitateetan aldaketak ezartzeko inspiratu ziren. Beren herrietara itzuli ziren justizia sozialaren hazia bihotzean zutela.

Denborarekin, Justiziaren Lorategiaren berria mugetatik haratago hedatu zen, urrutiko hiri eta nazioetako buruzagien belarrietara. Egun batean, munduko goi-bilerarako dei bat egin zen desberdintasunari heltzeko eta justizia soziala nonahi sustatzeko moduak eztabaidatzeko.

Amaia, orain emakume gaztea, Harmoniaren ordezkari gisa gonbidatu zuten. Audientzia orokor baten aurrean, Justiziaren Lorategiaren historia partekatu zuen, baita herri txiki batek desberdintasuna aitortu eta jorratzean aldaketa esanguratsua lortu zuela ere.

—Justizia soziala ez da amets lorezina bakarrik; denok partekatzen dugun

erantzukizuna da. Gutako bakoitzak lorategiaren bere zatia zaintzen badu, mundu osoa berdintasunez eta harmoniaz loratuko da —adierazi zuen Amaiak, entzuleen artean zirrara iraunkorra utziz.

Nazioek politika inklusibo eta bidezkoagoak hartzen zituzten heinean, munduak aurrekaririk gabeko eraldaketa jasan zuen. Hiritarrak elkartu egin ziren justizia sozialaren lorategi globala zaintzeko, eta noizbait pertsonak banatu zituzten ezberdintasunak desagertzen hasi ziren.

Harmonian, Justiziaren Lorategiak loratzen jarraitu zuen, ez bakarrik loreekin, baita belaunaldiz belaunaldi transmitituko ziren elkartasun- eta enpatia-istorioekin ere. Herri txikia itxaropen-itsasargi bihurtu zen, eta elkarrekin lan egiten denean aldaketa esanguratsua lor daitekeela gogorarazi zuen. Desberdintasunaren itzala guztiontzako bidezkoagoa zen etorkizunaren argi distiratsuak ordezkatu zuen.



OBSESIOA

Peio Garaizar Barrio
Ignacio Ellacuría-Zurbaran BHI

Koldo leku miresgarri batean agertu zen. Lautada erraldoi batean zegoen, animaliaz eta landarez betetako lekuan. Urrunean, mendikate izugarria ikus zezakeen, guztiz elurtuta, eta beste aldean baso handi bat, zuhaitz altuekin. Paisaia hori ikusita, Koldok inoiz sentitu zuen bake-sentsazio sakonena sentitu zuen. Orduan, emakume baten ahots leuna entzun zuen, xuxurlaka ari balitzaio bezala. Berarekin joateko zioen ahotsak. Koldok ez zekien nondik zetorren ahots hori, baina, haren intentzioa ez zen arren, basoan barrena abiatu zen. Mugitu ahala, emakumearen ahotsa argiago eta ozenago entzuten zuen, emakumea pare-parean izango balu bezala. Aurrean zeukan kobazulo batean sartzeko esan zion emakumeak Koldori, eta Koldo sartu egin zen.

Bat-batean, kobazuloan sartzerakoan, ametsetik esnatu zen Koldo. Ordura arte ikusi zuen guztia ez zen benetakoa izan, ametsa baizik. Hala ere, normalean baino biziago gogoratzen zuen ametsa, eta denbora batez egon zen pentsatzen benetako bizipena izan zen ala ez.

Esnatu eta gero, Koldok bere bizitzara bueltatu behar izan zuen. Bere apartamentu txikiak kartzela zirudien, ametsean gertatutakoarekin alderatuta. Prestatu ondoren, kalerantz abiatu zen, lagunekin geratuta zegoen eta. Kanean zehar zihoala, ametsa oroitzen jarraitzen zuen, eta jada desagertu zen bake horretan pentsatu

zuen. Berriz ere bakea sentitzeko nahia izan zuen. Koldok uste zuen kalean zegoen zarata eta kutsadura infernua zirela. Lagunekin egon zenean, ametsari buruzko pentsamenduak denbora batez desagertu egin zitzaizkion eta bere lagunekin ondo pasatu ahal izan zuen. Alai egon zen arren, Koldok ezin izan zituen guztiz baztertu bere ametsari buruzko pentsamenduak. Bere lagun batek, Mikel deitutakoak, Koldoren jarrera apur bat aldatuta zegoela hauteman zuen, eta ea ondo zegoen galdetu zion. Koldok ezetz erantzun zion, baina Mikelek ez zion garrantzi handirik eman.

Arratsaldean, lanean, Koldok ezin izan zion kontzentrazioari eutsi, bere burua ametsetako munduan sartuta zegoen eta. Denbora pasatu arren, ez zitzaion xehetasunik ahazten, baizik eta gehiago gogoratzen zen ametsaz. Bulego batean kontulari gisa egiten zuen lan, eta egiten zuen lan aspergarriarekin denbora izan zuen bere burua lanean guztiz kontzentratua ez egoteko.

Gau hartan, berriz ere amets berdina izan zuen. Dena zen gogoratzen zuen bezalakoa: paisaia, animaliak, emakumearen ahots baketsua mar-mar egiten... Berriz abiatu zen leku bererantz, baina, aurrekoan ez bezala, Koldok oso argi zeukan norantz zihoan eta interesa zuen kobazuloan zer zegoen jakiteko. Berriz ere basoan zehar sartu zen eta emakumeak berari jarraitzeko errepikatu zion. Kobazulora heldu zenean, irrikan zegoen barruan zer aurkituko zuen jakiteko, baina, aurreko aldian gertatu zitzaion bezala, esnatu egin zen sartu baino lehen.

Esnatu zenean, Koldo izerditan zegoen, eta bero handia zuen. Iratzargailuari begiratu zion ea zer ordu zen jakiteko, eta goizeko laurak ziren oraindik. Koldok bere ametsean berriz ere sartzeko denbora zuela pentsatu zuen; beraz, lokartu egin zen. Iratzargailuak esnatu zuenean, ez zuela amets berdina izan ohartu zen Koldo, baizik eta ondo gogoratu ezin zuen amets berria. Koldo asko kezkatu zen, ametsa galduko zuen beldur baitzen. Interneten ametsen inguruko informazioa bilatzen hasi zen, bereziki amets berdinak behin eta berriz nola izan ahal zituen. Gomendio batzuk aurkitu zituen horren inguruan. Berriz amets berdina izango zuela ziurtatu nahi zuen; beraz, egun guztian zehar bila ibiltzea erabaki zuen. Egun horretan ez zen lanera joan, baina inork ez zion garrantzirik eman, egunero lan horretan norbait falta zelako. Koldoren falta nabaritu zuen bakararra Mikel izan zen, baina lagunak ez kezkatzeko esan zioten. Hala ere, Mikelek Koldori zerbait gertatzen ari zitzaiola susmatu zuen.

Gaua heldu zenean, Koldo egun horretan zehar ikasitako gomendio guztiak erabiltzen saiatu zen, berriz ere ametsa izateko asmoz. Oso ondo lo egin zuen arren, berriz ere amets arrunta izan zuen. Koldo gero eta gehiago urduritzen hasi zen, bere bakea kendu izan baliote bezala sentitzen zen, eta lehen zuen bizitzara bueltatzera behartuta sentitu zuen bere burua. Ez zuen, ordea, sekula bere bizitza arruntera berriz joan nahi, nahiz eta txarra iruditu ez. Koldok argi izan zuen bere ametsaren kobazulo horretan egongo zela mundu zoragarri horretan bizitzeko sekretua, horregatik saiatu behar zen ametsa berriro izaten, kosta ahala kosta.

Hurrengo egunak bere etxean eman zituen Koldok, Interneten teknika berriak bilatzen. Liburuak ere erosi zituen, informazio-iturri gehiago izateko; izan ere, zenbat eta informazio gehiago lortu, errazagoa izango zen ametsa behin eta

berriz errepikatzea. Teknika edo aholku berriak lortzen zituenean, lotara joaten zen, ea eraginkorrak ziren frogatzeko. Saiatu ahala ikusten joatean zen. Porrot horiek guztiek Koldoren obsesioa handitu besterik ez zuten egiten. Eta obsesioa handitu ahala, funtsezkoak ziren gauzak egiteari utzi zion Koldok. Dutxatzeari uztea izan zen lehena; eta astebete pasatu zenean, ia ez zuen ezer jaten, oso obsesio handia zuen eta.

Koldo inoiz ez ikusteak Mikel asko kezkatu zuen, eta lagunak seguruenik gaixorik egongo zela esan arren, Mikelek kezkatuta jarraitzen zuen, Koldoren jarrera arraroa gogoratzen zuen eta. Egun batean Mikelek bere laguna ikustera joan behar zuela erabaki zuen, ondo zegoela ziurtatzeko.

Hurrengo egunean, Mikel Koldoren etxerantz abiatu zen. Bizi zen eraikinera ailegatu zenean, Koldoren pisuko txirrina jo zuen, Koldok erantzungo zuelakoan. Erantzunik ez zegoela ikustean, Mikelek berriz ere jo zuen txirrina. Hainbatetan jo ostean, eta ez ziola erantzuten ikusirik, lagunari zerbait larria gertatu zitzaiola pentsatu zuen. Orduan, Mikelek larrialdi zerbitzuetara deitu zuen eta haren egoera azaldu zien. Minutu gutxi batzuk pasatuta, suhiltzaile eta polizia batzuk Koldoren etxera joan ziren; eta auzokide bati atea irekitzeko eskatu ostean, eraikinean sartu ziren. Koldogatik galdetzen aritu ziren auzokoei, baina inork ez zuen aste horretan ikusi. Orduan, pisan sartzeko Koldoren etxeko atea apurtu behar zutela erabaki, eta horixe egin zuten.

Sartu zirenean, Koldoren egoerak denak harritu zituen. Lurrean botata zegoen, liburuak irakurtzen. Ilunetan zegoen etxe osoa, irakurtzeko lanpara txiki bat izan ezik. Koldok bere itxura guztiz galdu zuen. Aurreko astean baino askoz ere argalago zegoen, eta sekulako kiratsa zeukan. Haren aurpegiak ez zuen inolako adierazpenik, bere begi grisek ez zuten emoziorik. Haren ahoa erdi irekita zegoen, baina ez zuen hortzik erakusten. Ilea galtzen hasia zen, baina ez zirudien modu naturalean galdu zuenik, baizik eta ilea berak kendu zuela, eskuekin tiraka, urduritasunaren ondorioz.

Egoera ikustean, suhiltzaileek berehala nabaritu zuten burua galdu zuela eta laguntza behar zuela. Beraz, anbulantzia bati deitu zioten, eta Koldo eraman egin zuten, haren borondatearen kontra. Mikel berarekin joan zen ospitale psikiatrikora. Ospitalean medikuek Koldori hainbat proba egin zizkioten egoera aztertzeko. Proba horiekin lortu zuten bakarra suhiltzaileek esandakoa egiaztatzea izan zen. Koldok denbora batez ospitalean egon behar izango zuen, sendatu arte. Logelara eramaten ari zirenean, Koldok bere buruari gauzak xuxurlatzen zizkion, baina medikuek ezin izan zuten zer esaten ari zen ulertu.

Koldoren logelan zegoen guztia segurua zen Koldok bere buruari minik ez egiteko. Lehen egunetan, alkandora hertsagarri bat izan zuen jantzita, bere buruari kalterik ez egiteko. Egunero sartzen ziren medikuak gelan Koldori janaria eta medikazioa emateko. Hasieran ez zuen gustuko, baina gutxinaka ez zegoela beste irtenbiderik ikusten joan zen. Noizean behin, Mikelen bisita jasotzen zuen. Apur bat errudun sentitzen zen, bere laguna aste betez bakarrik etxean uzteagatik. Medikamentuei esker, bazirudien Koldo ametsa ahazten zihoala eta hoberantz egiten zuela bere egoerak. Bi hilabete pasatu eta gero, pertsona normal batek bezala jokatzeko, eta bere gelatik atera eta ospitalean paseoak ematen utzi zioten. Hurrengo hilean, Koldori kalera ateratzen utzi zioten, medikuen zaintzapean. Hasieran ospitaletik

gertu zeuden lekuetara eramaten zuten, eta hobetzen joan ahala, gero eta gehiago aldentzen ziren ospitaletik, hirira ateratzen utzi zioten arte.

Medikuek ez zuten igarri, ordean, berriz hirira joaten zenean, hango kaleak infernua irudituko zitzaizkiola Koldori, eta momentu hartan dena gogoratuko zuela: ametsa, bakea, kobazuloa... Orduan, ametsean betiko gelditzeko intentzioarekin, bere buruaz beste egin zuen, auto baten kontra salto eginez. Medikuek zeharo txunditu zituen horrek, ez zuten horrelakorik espero eta. Hori entzunda, Mikel errudun sentitu zen betiko, arazoa sumatu zion arren, beranduegi zelako lagunari laguntzeko.

ADISKIDETASUNAREN ODISEA

Haizea Campo Sasiain
Deustuko Ikastola IPI

Hondarribiko lurralde magikoan jaio zen Anttonen istorio aparta. 15 urte besterik ez zituen, eta espektatibak desafiatzen zituen garaiera zuen: 1,30 metro baino ez zituen. Gaztea epopeia baten protagonista bihurtuko zen, bere bizitza ez ezik, Hondarribiaren esentzia bera ere eraldatuko zuena.

Bigarren Hezkuntzako lehen egunetik, Anttonek mespretxuzko begiraden eta iseka mingarrien epizentroan topo egin zuen. Raulek, larderiataile talde baten buru zen gazte handi batek, Anttonengan jarri zuen arreta, bere txantxa krudelen etengabeko puntu finko bihurtuz. Anttonek, eguneroko ezbeharrei aurre egin arren, irribarre egiten zion aurpegian, hitz mingarri eta barre gupidagabe bakoitzak bere konfiantzan uzten zizkion orbain emozionalak ezkutatuz.

Hondarribiko liburutegia, denboraren zokoetan galdutako lekua, Anttonen babesleku bihurtu zen. Anttonek, iragan mendeetako jakinduriaz kraskatzen ziren liburuz betetako pasabideen artean, kontsolamendua eta indarra aurkitu zituen. Han ezagutu zuen Julene, antzinako larrainetako ahotsekin durundi egiten zuten liburukien artean, literaturarako grina zuen ikaslea, hitz idatziak gainditzen zituen zorroztasunez.

Julenek, Anttonek egunero aurrez aurre zuen oinazeaz ohartzean, patua aldatzeko deia sentitu zuen. Plan ausart bat egin zuten elkarrekin, gizartearen

pertzepzioei aurre egiteko eta pertsona baten balioa ez dela zentimetrotan neurtzen frogatzeko. Eraldaketa epopeia horretan sartu zen lehen aldia Hondarribiko talentuen urteroko lehiaketa ospetsuan izena ematea izan zen. Ekitaldi horrek belaunaldien arteko oztopoak gainditzen zituen eta komunitate osoa biltzen zuen trebetasunen eta sormenaren ospakizun zirraragarri batean.

Anttonek eta Julenek lehiaketan parte hartu zuteneko albistea hirian zehar zabaldu zen, aldaketaren oihartzun gisa. Ikasleak, bi lagunak ausardiak inspiratuta, hiltzaileen jarrerak zalantzan jartzen eta Hondarribiaren enpatiaren eta inklusioaren garrantziaz hausnartzen hasi ziren.

Azkenean iritsi zen lehiaketarako hainbeste itxarondako eguna. Entzuleria irrikaz beterik zegoen, Antton eta Julene eszenatokira noiz igoko ziren zain. Ezin hautsizko erabakitaz, Anttonek mikrofonoari aurre egin zion, Julenek bere gitarra trebetasunez afinatzen zuen bitartean. Anttonek partekatu zuen istorioa ez zen soilik bere esperientzien kontakizuna izan; aniztasunak guztion bizitzari ekartzen dion aberastasuna aztertzen zuen epopeia bat izan zen. Juleneren melodia maisuki lotu zen narratibarekin, eta esperientzia bat sortu zuen, bertan zeudenen bihotzak ukitu ez ezik, Hondarribiaren historian aztarna ezabaezina utzi zuena.

Bere emanaldiaren amaierako txaloak ez ziren besterik gabe bere talentuaren errekonozimendua izan; Hondarribia osoan zehar entzun zen aldaketa baten oihartzuna izan ziren. Antton eta Juleneren ausardia eta talentua ospatzeko sinfonia batean batu zen komunitatea. Matoiak, baztertutako gutxiengo batera murriztuak, hirian sortzen ari zen babes eta onarpen mareak eklipsaturik ikusi zuten euren burua.

Denborak aurrera egin ahala, Hondarribiak Anttonekiko zuen jarrerak erabateko metamorfosia izan zuen. “Mutil txikia” besterik izanagatik, indarraren eta kemenaren sinbolo bihurtu zen, eta jende asko inspiratu zuen azaleko itxuretatik haratago begiratzera. Raulek, larderiatazaileen buruzagiak, bere krudelkeriaren pisua sentitu zuen eta, introspektzio sakon baten ondoren, bere bizitzan bira bat ematea eta Anttoni barkamen publikoa eskatzea erabaki zuen. Raulen barkamena enpatiaren eta eraldaketa pertsonalaren boterearen testigantza hunkigarria bihurtu zen.

Antton eta Juleneren istorioa ez zen Hondarribiko eskolako geletara mugatu. Hirian ehuntzen joan zen legenda bihurtu zen. Lagun bikoteak, bullyingaren aurkako borrokaren defendatzaile sutsu bihurtuta, hezkuntza-programetan aktiboki parte hartu zuen, Hondarribiko mugetatik haratago hedatzen zen laguntza-sare bat sortuz.

Graduazioa iritsi zen, eta Anttonek bere diploma ez ezik, eskolaren aintzatespen berezia ere jaso zuen, ingurune inklusibo bat sortzen egindako ekarpenagatik. Raulek, bullyingaren aurkako borrokan aliatua denak, saria eman zion errespetuzko eta esker oneko keinu batekin, Hondarribiaren historian mugarri bat ezarri.

Denborak aurrera egin ahala, Anttonek eta Julenek bide bananduei ekin zieten, baina haien adiskidetasunak urteetan zehar iraun zuen. Antton autore bihurtu zen, eta enpatiaren eta norberaren gainditzearen garrantzia nabarmentzeaz gain, ebo-luzioan zeuden gizarteetako inklusioari eta aniztasunari buruzko datuak ere aztertzen zituzten liburuki luzeak idatzi zituen. Bestalde, Julenek bere bide musikala jarraitu zuen, denbora eta oztopo kulturalak gainditzen zituzten sinfoniak konposatuz, eta batasun- eta maitasun-mezuak zabalduz.

Antton eta Juleneren istorioak marka iraunkorra utzi zuen Hondarribiaren historian. Eskolak, behin ankerkeria eta erdeinuzko agertokia izan zenak, bullyingaren aurkako programak inplementatu zituen, bi lagunen esperientzia oinarrituta, eta inspirazio-itsasargi bihurtu zen beste hezkuntza-erakunde batzuentzat. Hiria, noizbait intolerantziaren lanbroan sartuta egon zena, komunitate inklusibo eta errespetuzko eredu bihurtu zen.

Bi lagunen ondarea Hondarribiko mugetatik haratago hedatu zen, bullyingaren arazoari aurre egiteko inspirazio bila zebiltzan beste hiri eta eskola batzuetara iritsiz. Antton eta Julene kemenak eta adiskidetasunak komunitate oso baten patua nola molda dezaketen sinbolo bizidun bihurtu ziren.


Hondarribiaren historia, behin historiaren kronika hutsa izan zena, orain Antton eta Juleneren epopeiarekin lotuta dago. Kaleetan beraien izenak entzuten dira, eta hiria itxaropenezko itsasargi bihurtzen da zoritxarrari aurre egiten diotenentzat.

Kronika honen azken orrialdeetan, Hondarribia ez da soilik mapako puntu bat bezala agertzen, baizik eta transformazio eta gainditze itsasargi distiratsu bat bezala. Anttonen eta Juleneren istorioak, amore eta adiskidetasun hariz ehundua, tokikoaren mugak gainditzen ditu erresilientziaren testigantza unibertsal bihurtzeko.

Karrikak, behin krudelkeriaren lekuko, orain Anttonen ausardiaren oihartzu-narekin eta Juleneren betiko doinuarekin entzuten dira. Hiria, noizbait intolerantziaren lanbroan sartuta egon zena, komunitate inklusibo eta errespetuzko eredu gisa altxatzen da. Bere ausardiaren ipuinak, gau izartsuetako sutegien inguruan kontatuak, datozen belaunaldien inspirazio iturri dira orain.

Hondarribia, lehen puntu geografiko soil bat, aldaketaren eta gainditzearen sinbolo bizidun bihurtzen da. Antton eta Juleneren kondaira, tokiko historiaren orrialdeak gainditzen dituen, betiko sinfonia bihurtzen da, bere historiak ukitu dituenen bihotzean durundi egiten duena.

Horrela, Hondarribiko odisearen kapitulu hau ixten dugun bitartean, ziur gaude bullyingaren aurkako borroka adoretz, adiskidetasunez eta zoritxarraren orrialdeak itxaropen eta berrerospeneko kontakizun batekin aldatzeko erabakiaz garaitu daitekeen borroka dela.



Mikoleta Bilboko
Mikoleta Bilboko
Mikoleta Bilboko
Mikoleta Bilboko
Mikoleta Bilboko
Mikoleta Bilboko
Mikoleta Bilboko
Mikoleta Bilboko



MIKOLETA

BILBAO BALIOEN HIRIA

C eta D kategoriak



URPEAN

Oier Olmos Chico
San Adrian BHI

***I**tsaso erdian nengoen, laguntza eskatzen eta oihukatzen. Ez dakit zergatik, baina bertan amaitu nuen. Uharte bat ikusten nuen, baina ez nintzen igeri egitera ausartzen. Pixkanaka-pixkanaka hondoratzen ari nintzela nabaritu nuen: lehenengo besoak, ondoren bularra, gero lepoa... Une hartan oso ikaratuta nengoen, ez nekien zer egin. Flotatzan saiatu nintzen, baina indar ezezagun batek tira egiten zidan itsas hondo sakon, ilun eta arriskutsura. Burua hondoratzen hasi zen, ia ezin nuen arnasarik hartu, eta momentu horretan...*



—Ander, ez duzu alarma entzun? Esnatzeko ordua da!

Ander naiz eta 13 urte ditut. DBHko 2. mailan nago eta Zorrotzan bizi naiz. Futbola eta tenisa gustuko ditut, baita telebista ikustea ere. Txikitan, nire gurasoekin igerilekura joaten nintzen eta jendeak ondo igeri egiten nuela esaten zidan. Baina, egun batean, igeri egiten nenbilela, urperatu egin nintzen. Burua atera nahi nuen, baina koltxoneta handi bat zegoen nire gainean. Arnasa hartu nahi nuen, baina ura irensten hasi nintzen. Orduan, azkar igeri egin nuen. Ura irensten eta eztulka, igerilekutik ateratzea lortu nuen, eta hortik aurrera ez naiz berriro uretan sartu.

Izerditan nengoen esnatu nintzenean. Azken hiru gauetan amesgaizto berdina izan nuen. Gosaldutik ostean instituturara joan nintzen, gogo barik, beti bezala. Alexek beti egiten dit berdina.

—Aizu! Ez ditut mateko etxeko lanak egin. Pasa iezaazu zure koaderno edo bestela... Badakizu, ezta? —esan zidan Alexek.

Egunero gertatzen da hori, eta ez naiz ausartzen inori kontatzen. Beti uzten diot nire koaderno, badakielako hidrofobia daukadala. Hidrofobia urarekin kontaktuan egoteko beldurra da. Eta guk institutuan igerileku bat dugu... Beraz, imajina dezakezue.

Klaseak pasatu ziren, eta futbol entrenamendura joateko ordua heldu zen. Kirol entrenamenduak nire eguneko unerik gogokoenak dira, bizitzan dauzkadan arazoak ahazten ditudalako. Baina, entrenamenduak amaitzean, errealitatera bueltatzen naiz eta dena gogoratzen dut berriz.

Behin, ohean sartu nintzenean, nire egoera aldatzeko irtenbideak pentsatzen aritu nitzen, baina ez zitzaidan ezer bururatu. Pentsatzeari utzi nion logura nintzelako, eta azkenean lo geratu nintzen.

Itsaso erdian nengoen, laguntza eskatzen eta oihuka. Ez dakit zergatik, baina bertan amaitu nuen. Uharte bat ikusten nuen, baina ez nintzen igeri egitera ausartzen. Pixkanaka-pixkanaka hondoratzen ari nintzela nabaritu nuen: lehenengo besoak, ondoren bularra, gero lepoa... Une hartan oso ikaratuta nengoen, ez nekien zer egin. Flotatzan saiatu nintzen, baina indar ezezagun batek tira egiten zidan itsas hondo sakon, ilun eta arriskutsura. Neure burua hondoratzen hasi zen, ia ezin nuen arnasa hartu, eta momentu horretan... igeri egiten hasi nintzen. Ez dakit nondik atera nituen indarrak, baina uhartearen norabidean igeri egin nuen. Izututa, etengabe itsas hondora begiratzen nuen, baina ez nintzen gelditzen. Gero eta gutxiago falta zen, eta ezin nuen amore eman. Oso beldurtuta nengoen, baina metro batzuk falta ziren. Ahalegin apur bat gehiago eta lortuko nuen. Azkenean, uhartera heldu nintzen, eta nire bizitza osoan nabaritu dudana euforia handiena sentitu nuen.

Esnatu nintzenen ez nengoen izerditan aurreko hiru gauetan bezala. Irribarre bat neukan ahoan, eta neure buruari esan nion: “Gaur dena aldatuko da”. Eta berriz lokartu nintzen.

Iratzargailuak goizeko zazpietan jo zuen, eta jauzi batez altxatu nintzen ohetik. Egun handia izango zen, eta egun hartan bete behar nituen hiru helburuak gogoratu nituen. Lehenengoa nire gurasoei Alexekin gertatzen zitzaidana kontatzea zen.

—Eta zergatik ez diguzu lehenago kontatu? —galdetu zion amak.

—Ez nintzen ausartzen, zerbait txarragoa gertatuko zela pentsatzen nuen.

—Ulertzen dizut, Ander. Baina egoera horiek lehenbailehen gelditu behar dira. Institutura deitzea nahi duzu? —galdetu zidan aitak.

—Ez da beharrezkoa.

Nik banekien Alex ez zela gai izango ni igerilekura botatzeko. Orain arte Alex ni baino indartsuagoa izan da, ni neure arazoekin triste nengoelako, baina gaur desberdin izango da: neure burua maitatzen ikasi dut, eta horrek indarra eta ziurtasuna emango dizkit. Orduan, nire bigarren helburua neure buruaz ziur egotea eta maitatzea zen.

—Aizu, ume txiki hori! Eman iezadazu Geografiako koadernoak —esan zidan Alexek.

—Ez.

—Nola?

—Ez duzu entzun? EZ.

Momentu horretan txirrinak jo zuen, eta institutuko eskailerak igotzen hasi nintzen, Alex aho zabalik gelditu zen bitartean.

Etxera nindoala, hirugarren helburuan pentsatzen hasi nintzen. Azkena eta zailena. Etxera heldutakoan, motxila prestatu nuen, eta leku hartara joan nintzen, ordura arte ikara eragiten zidan lekura.

7 urte geroago, igerileku baten aurrean egon nintzen berriz. Oso sakona zirudien, baina beranduegi zen atzera egiteko. Oso urduri nengoen, baina arnasa hartu nuen, eta uretara sartu nintzen!

Hasieran beldurtuta nengoen, baina gero ondo sentitu nintzen igeri egiten, erlaxagarria izan zen. Txikitako oroitzapenak etorri zitzaizkidan gogora, eta pozik sentitu nintzen: nire fobia gainditu nuen.

Hortik aurrera institutuko egunak hobetu egin ziren, eta konturatu nintzen Alex ez zela uste nuen bezain gaiztoa. Nik bezala, hark ere tenisa eta futbola gustuko zituen, eta elkarrekin partiduak jokatu genituen. Baina, txikitan gertatutakoa gertatuta ere, nire kirolik gustukoena igeri egitea da.

EGUNEZ EGUN

Arantza Landaburu Iñurrieta
Artxandape Ikastola HLBHIP

“**G**uk bizi duguna ez da justua” entzun nuen telebistan. Ama neukan alboan, sofan eserita, dokumental bat ikusten. Dokumentala munduan bizitza injustua bizi duten pertsonen buruzkoa zen. Burura etorri zitzaidan lehenengo gauza kontatzen zutena ez zela hain gogorra izan zen, gezurretan zebiltzala, haien bizitza eta jasaten zutena ez zela hainbestearainokoa. Eta amari adierazi nion.

—Ama, horiek gezurretan ari dira, haien bizitza gurea bezain erraza da.

—Aratz, ez esan horrelako tontokeriarik, zuk ez dakizu zer jasan behar izan duten. Zu pertsona zuria zara, gizona, aberatsa eta heterossexuala, eta dena erraz lor dezakezu.

Ez nekien zer zetorkidan...

Begiak zabaldu ditudan lehengo momentutik oso arraro sentitu naiz, ni neu ez banintz bezala. Ohetik altxatu eta komunerantz abiatu naiz, eta ispilura begiratu eta ikara izan da sentitu dudana lehenengo gauza. Ile kizkurra, begi handiak, ezpain potoloak dauzkat. Aurpegia ur hotzarekin busti dut, dena amesgaizto bat zela pentsatu nahian, baina, hala ere, ez da desagertu.

Dena neure buruan dagoela pentsatuz, arrapalada batean jantzi eta sukaldara abiatu naiz. Ostirala da, eta ikastolara berandu nindoan. Berandu esnatzeko ohitura

daukat, sagar bat eskuan hartu eta korrika batean etxeko atetik atera naiz gurasoak eta anaia agurtuz. Ikastolarantz korrika nindoala, 5 minutu falta zirenean, ertzain bat nire atzetik zetorrela sumatu dut, baina arraroa iruditu zait, nik ez dudalako ezer egin. Halako batean, ertzaina geratu, kotxetik atera eta niregana hurbildu da, harroputz eta larritu aurpegiarekin. Galdera asko egin dizkit: “*Nora zoaz?*”, “*Nondik egiten duzu ihes?*”, “*Zer daukazu motxilan?*”... Denak erantzun dizkiot, ez nuen gatazkarik nahi; baina, hala ere, ez nuen ezer ulertzen. Klasera heldu naizenean, denak begira geratu zaizkit, nazka aurpegiak jarritz. Korrika batean nire lekura joan naiz. Artean ere begiradak sumatu ditut, eta ez dira bukatu irakaslea sartu den arte.

Txirrinarak jo duenean, poztu egin naiz etxera bueltatzeko ordua heldu delako. Etxera autobusez bueltatzea erabaki dut oso nekatuta bainengoen oinez bueltatzeko. Autobusean sartu eta hasieratik tratu txarrak sumatu ditut. Autobuseko eserleku batean jesarri naiz, ez neukan inor ondoan jesarrita, baina, hala ere, autobusa bete-beteta zegoen eta “*Ni hor ez naiz eseriko*”, “*Hor jartzen banaiz, lapurtu egingo didate*”... Horrelako komentarioak jasan behar izan ditut.

Etxera heldu eta segituan logelara abiatu naiz. Negargura itzela neukan, ez nuen ulertzen pertsona beltza bihurtzeagatik jendeak horrelako mespretxuak egingo zizkidanik. Ez da justua! Negarraren negarrez lokartu egin naiz hurrengo egunean dena hobetuko zen esperoan.

Begiak berriro zabaltzeko ahalegin handia egin behar izan dut, oso puztuta bainenezkan atzoko negarraldiaren ondorioz. Buruko min handia neukan, ezin nituen atzoko esperientzia guztiak burutik kendu. Kostata altxatu eta segituan komunera abiatu naiz, baina ispiluan ikusi dudana ez da izan espero nuena.

Janztea ere oso zaila egin zait, ez nekien zer jantzi. Beldurrez, kalera atera naiz. Albisteetan hainbat notizia entzun ditut eta kalera ateratzeak ere beldurra eman dit. Kalean nengoela, amak bidalitako errekadu bat egitera joan naiz, eta kaletik nindoala, begiradak sumatu ditut, batere gustatu ez zaizkidanak. Ez naiz ni neu sentitzen; gainera, nire ahizparen armairuko arropa neraman jantzita. Egia esateko, gonak ez dira oso erosoak. Etxerako bidean, hiru gizon hizketan hasi zaizkit, ez diet kasurik egin, baina, aurretik pasatzean, batek ipurdia ukitu dit. Ezin dut deskribatu ere egin sentitu dudana: inpotentzia, haserre, tristura... Objektu bat izango banintz bezala sentitu naiz, haiei nire sentimenduak axola ez balitzazkie moduan.

Etxera heldutakoan egin dudana lehenengo gauza arropa zikin hori kendu eta dutxa bat hartzea izan da; oso zikin sentitzen nintzen. Ateratakoan, arropa aldatu dut eta nire armairuko txandal handi bat jantzi dut. Siesta egin ondoren, amak afaltzera lagun batzuk ekarriko dituela aipatu dit, eta egia esan, ez nuen bisitetarako gogorik, baina amak behartu egin nau. Egongelara heldu naizenean, bertan zeuden amaren hiru lagunak. Begirada arraro batekin begiratu didate eta neska izateko gehiago zaindu beharko nuela esan didate inongo lotsarik gabe. Emakume izatea ere oso zaila da, dena txarto egiten dudana sentsazioa daukat. Logelara igo naiz korrika, ez neukan ezer jateko gogorik eta nire gauzetan pentsatzen loguraren loguraz lo siku geratu naiz, bihar dena hobera joango den esperoan.

Halako batean esnatu egin naiz, izerdi-patsetan nago. Gurasoak ondoan dauzkat zer gertatzen zaidan galdezka. Ondo nagoela erantzunda, komunera joan

naiz korrika, ikasteko hainbat esperientzia eduki ditudan komun horretara. Ispiluan begiratu eta bizitza osoan sentitu dudan sentimendu pozgarriena izan dut. Ni neu naiz, Aratz Mendiburu, a zer poza! Gurasoak atean, konfunditu aurpegia zeukaten. Haiengana hurbildu eta besarkada bat eman diet. Dena amesgaizto bat besterik ez dela izan kontatu diet. Ametsetan egunez egun pertsona desberdin baten bizitza zaila bizi izan dudala kontatutakoan, eskarmentu handia jaso dudala konturatu naiz. Pertsona horiek egunero jasan behar dutena ez dela justua kontatzen hasi da ama. Orain ulertzen dut, arrazoia dauka.

Berdintasunak errespetua ez ezik, berdin tratatzea ere esan nahi du.



Aurkibidea

Sariak	4
------------------	---

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Aimarrek ez du hitz egin nahi	9
• Mari Puri Txoriburu	11
• Desafinatutako diapasoa	13
• Katu beltza	15
• Laila	17
• Neska euskalduna	19

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

• Nire barneko traganarrua	23
• Ogi eta oihal artea	26
• Titulua amaieran	30
• Zerrenda luzea	35
• Hondartza garbiak	38
• Abenduko mahatsak	41

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

• Bihotz handiko gizon beldurgarria	49
• Koloredun marrazoa.	54
• Israel eta Palestina. Bi ipuin motz historian zehar	56
• Uretako margolaria	59
• Nire istorioa	62

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Zer da maitasuna?	69
• Ametsetako ikasbidaia	72
• Collagearen atzeko istorioa.	75
• Justiziaren lorategia	79
• Obsesioa.	82
• Adiskidetasunaren odisea	86

MIKOLETA - BILBAO BALIOEN HIRIA

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Urpean.	91
-------------------	----

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Egunez egun	94
-------------------------	----

Miy
Shoketa
Miy
Shoketa
Miy
Shoketa
Miy
Shoketa
Miy
Shoketa
Miy
Shoketa



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

